# Berrigara














# 1999

urteari errepasoa
















# Opariak jasotzea hain d



Gemma lentzeria
NEREA. Simon Arrieta 1



Pelutxeak
JOLAS. Barrenkalea 27



Spoon jantziak
KAMAGÜEY. Bidekurutzeta 3



Barometroa, termometroa eta higrometroa
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA. Ibargarai 16




Umeendako Orbea Jumbo bizikleta
BICIPRECISION IGARTUA. Zubieta 5-7



Certina. Alex Crivilleren erlojua
ETXEBERRIA. Bidekurutzeta 16



Custo kamiseta
MAYA. Irizar 2




Columbia oinetakoak
LAZKANO. Barrenkalea 15-17

# gauza ederra...



alvin Klein betaurrekoak
MANSO. Irizar 2




Ibiltariarendako podometroa
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA.
Ibargarai 16



Lee kazadora eta prakak
PRAKAK. Burdinate z/g



ermaine de Capuccini
murren kontrako programa
ARTZU. Boni Laskurain 3




Viviance Retinol eta Wrinkle
Defens tratamendua
GIARTZU. Boni Laskurain 3



EseOese jertsea
IKUSBI. Irala 5



Chantelle lentzeria
GANTXEGI.
Telesforo Aranzadi 2



Gucci Rush perfumea eta
osagarriak
ALGA. Ibargarai 10

# Eta hainbeste egin ditzakegu!



Saunier Duval

DICOMAN S.L.

**San Lorentzo, 21**
20.570 Bergara
Laguntza teknikorako zerbitzu ofizial baimendua
**Tf. 943 76 06 61**

**BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA**





OLABE
*okindegia - gozotegia*

*Lantokia:*
*Amillaga kalea*
*Tf. 943 76 72 28*

*Bergara*

*Matxiategi 4.*
*Tf. 943 76 57 99*

*Zurradero 2.*
*Tf. 943 76 01 26*

Gabon alaiak eta urte berri gozo!



Berrigara

392 zenbakia
1999 urteari errepasoa
1999ko abenduaren 24a

Errotalde Jauregia
20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea:
JARDUN Elkartea

Zuzendaria
Eneko Azkarate

Erredakzioa
Eneko Azkarate
Edu Mendibil
Tere Madinabeitia
Aintzane Irizar

Maketazioa
Iñaki Iturbe

Publizitatea
Uxue Zabaleta

Harpidetza
Itziar Kortabarria

Testuen zuzenketak
Estepan Plazaola
Alex Labaien
Maripi Laskurain

Erredakzio kontseilua
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien
Estepan Plazaola

Banaketa
Txantxangorri taldea

Inprimategia
Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Oñati)

Azala: Berrigara

Tirada: 5.300 ale

Copyright: BERRIGARA
Lege gordailua: SS 50/91
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:

Bergarako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

# Aurkibidea

## Gaiak

Urteko albiste aipagarrienak kirolari, kulturari eta bestelako gertakariei buruz

8 URTEKO **ALBISTEAK**
24 URTEKO **KIROL ALBISTEAK**
53 URTEKO **KULTUR ALBISTEAK**




## Perfilak

1999an zehar zeresana eman duten herriko pertsonaiei buruz beste hainbeste lagunek idatzitako hitzak

16 MANU **MUNIATEGIANDIKOETXEA**
19 AGUSTIN **ARANZABAL**
32 BIXENTE **PAGALDAI**
37 MIGUEL **GONZALEZ BASTIDA**
50 JUAN MARTIN **ELEXPURU**






## Bereziak

Urtearen hondarrean, hamabi hileok eman dutenari begirada, hainbat ataletan

6 GABONETAKO **AGENDA**
20 TESTIMONIOAK: MENDEAREN **ERRETRATUA**
38 URTEKO **AHOPEKOAK**
42 MAHAINGURUA: **GAURKO GABONAK**
46 GALDERA 30 LAGUNI: **MENDEKO ONENA ETA TXARRENA?**
62 1999AN **JAIOTAKOEN ETA HILDAKOEN ZERRENDA**
64 ERRETRATU **ZAHARRA**



# Gabonetako agenda

## EGUAKITZA 24

▶ **Amnistiaren aldeko Olentzeroa**, 8:30etan Zabala jatetxetik hasita. Arratsaldean, 19:00etan, euskal presoen eskubideen aldeko manifestaldia egingo da eta jarraian kantuak San Martin plazan.

▶ **Novedades**: 17:00 (filmea zehazteke).

▶ **Tren Vasco-Navarroari buruzko argazki erakusketa** abenduaren 22tik urtarrilaren 2ra bitartean Kultur Etxeko aretoan, Kapirixo elkartearen eskutik.

▶ **Olentzero** 19:00etan helduko da Bergarara haurren kartak jasotzeko.

## ZAPATUA 25

▶ **Novedades:** 17:00, 19:30, 22:30 (filmea zehazteke).

▶ **Azur-en "Euskal txokoak"** argazki erakusketa ikusgai izango da Pol-Polen Gabonetan.


The Basque Country.

## DOMEKA 26

▶ **Kitarra kontzertua** 19:00etan Udaletxeko Pleno aretoan, "Airean" laukotea eta Eduardo Baranzano kitarrajolearen eskutik.

▶ **The Basque Country** taldearen emanaldia 22:00etan Jam aretoan.

▶ **Novedades**: 17:00, 19:30, 22:15 (filmea zehazteke).

▶ **Bergarako pintoreen erakusketa** ikusteko azken eguna, Beart elkarteko lokalean, Bolun.

## ASTELEHENA 27

▶ **Ur jolasak** igerilekuetan, 10:30etatik 13:00etara. 14 urtetik beherakoentzat.

▶ **Jolas parkea** 15:30etatik 18:30etara Kiroldegian. Derrigorrezkoa da kirol oinetakoak eroatea. Bost urtetik beherako haurrentzat joku bereziak izango dira. Ur jolas eta jolas parkerako bonoa 1.000 pezetan salgai.

▶ **Jardunen eskutik, haurrentzako jokoak** Kartzelan, 17:00etatik 20:00etara. Ur jolas eta jolas parkerako bonoa 1.000 pezetan salgai.

▶ **Gestorek deituta**, euskal presoen eskubideen aldeko gose greba abenduaren 27tik urtarrilaren 2ra bitartean.

▶ **Novedades**: 19:30, 22:15 (filmea zehazteke). Ikuslearen eguna.

▶ **Karlos Galarragaren margoak** ikusgai daude Nahikari tabernan.


Josune eta Edurne.

▶ **Lagunak** elkarteak antolatuta, areto futbolaren aldeko musika jaialdia izango da 22:00etan Jam aretoan. Josune eta Edurne, Saioa eta Izaro, Aitzol Mujika, Tanatos, Los Padrinos eta Latex taldeek hartuko dute parte jaialdian. Sarrerak 1.000 pezetan salduko dira.

▶ **Jardunen eskutik, haurrentzako jokoak** Kartzela Zaharrean, 17:00etatik 20:00etara.

## MARTITZENA 28

▶ **Ur jolasak** igerilekuetan, 10:30etatik 13:00etara.

▶ **Jolas parkea** 15:30etatik 18:30etara Kiroldegian.

▶ **Gazte mailako Gabonetako IX. Futbol Txapelketa**. Real Sociedad-Aretxabaletako UDA, 17:00etan Ipintzan.

▶ **Jardunen eskutik, Realeko hainbat jokalari** Kartzela Zaharrera etorriko dira, 17:00etatik 20:00etara gaztetxoekin egon eta autografoak sinatzera.

## EGUAZTENA 29

▶ **Ur jolasak** igerilekuetan, 10:30etatik 13:00etara.

▶ **Jolas parkea** 15:30etatik 18:30etara Kiroldegian. Besteak beste, pailzazoen ikuskizuna izango da.

*Urte berri on!*

GAZTELU

BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA


Ur jolasak.

▶ **Gazte mailako Gabonetako IX. Futbol Txapelketa**. Bergara-Aloña Mendi, 17:00etan Ipintzan.

▶ **Bergarako eskultoreen erakusketa** abenduaren 29tik urtarrilaren 9ra bitartean Bearteko lokalean, Bolun.

▶ **Jardunen eskutik, haurrentzako jokoak** Kartzela Zaharrean, 17:00etatik 20:00etara.

## EGUENA 30

▶ **Ur jolasak** igerilekuetan, 10:30etatik 13:00etara.

▶ **Jolas parkea** 15:30etatik 18:30etara Kiroldegian. Besteak beste, gimnasia erritmikoko erakustaldia egingo da.

▶ **Jardunen eskutik, gaztetxoen jaialdia** Kartzela Zaharrean, 17:00etatik 21:00etara.

▶ **Zine-kluba** izango da Novedades aretoan: Spike Lee zuzendariaren "SOS" filmea 20:00etan.

▶ **Kepa Junkera eta Anariren emanaldia** Jam aretoan, 22:30etan.


"Airean" laukotea.

## EGUAKITZA 31

▶ **Novedades**: 17:00 (filmea zehazteke).

▶ **Gazte mailako Gabonetako IX. Futbol Txapelketaren finala**, 16:00etan Agorrosinen.

▶ **Taupada** taldearen "Mari sorgin" haurrentzako antzezlana Zabalotegiko aretoan, 16:30etan eta 18:00etan.

▶ **Batera** plataformak deitutako manifestaldi ixila egingo da herriko kaleetan 18:00etan.

▶ **01:00 etan**, urte berriaren etorrera ospatzeko, Gestorek deitutako brindisa San Martin Plazan.

## ZAPATUA 1

▶ **Gabonetako pilota txapelketaren finala** Udal Pilotalekuan, 16:30etan.

▶ **Novedades**: 17:00, 19:30, 22:30 (filmea zehazteke).

## DOMEKA 2

▶ **Novedades**: 17:00, 19:30, 22:15 (filmea zehazteke).

## ASTELEHENA 3

▶ **Novedades**: 19:30 (filmea zehazteke). Ikuslearen eguna.

## EGUAZTENA 5

▶ **Bizar-Zurik** haurren gutunak jasoko ditu Udaletxean, 18:00etatik 19:00etara.

▶ **Erregeen kabalgata** Elosun, 19:00etan. Aurretik, jaiotza biziduna ikusteko aukera ere izango da.

▶ **Erregeen kabalgata** Bergarako kaleetan 19:30etan, Kultur Etxetik hasita.

▶ **Presoen argazkiekin poteoa**, 19:30etan.

## EGUENA 6

▶ **Novedades**: 17:00, 19:30, 22:15 (filmea zehazteke).


Erregeen kabalgata

## Farmaziak

**Eguakitza 24:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*
**Zapatua 25:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*
**Domeka 26:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*
**Astelehena 27:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*
**Martitzena 28:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*
**Eguaztena 29:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*
**Eguena 30:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*
**Eguakitza 31:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*

## Ogia

**Domeka 26:** Ogizun.
**Domeka 2:** Konde.
**Eguena 6:** Mizpildi.
**Domeka 9:** Ogizun.

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 112 |
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitala | 943 79 53 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 943 77 91 00 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Postetxea | 943 76 26 85 |

**OHARRA**
Hurrengo Berrigara, 393 zenbakia, urtarrilaren 14an banatuko dugu.


VIA DIGITAL
ZAIAZKO
TELEKOMUNIKAZIOAK
MoviStar activa
Bideoetan, titulorik berrienak!
Telesforo Aranzadi 3, BERGARA.
Tf. 943 76 10 66

# Urteko Albisteak

■ **Urtarrilak 25**
2.927 milioi pezetako aurrekontua onartu zuen Udalbatzak, EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko eta HBren kontrako botuekin. Inbertsioetara 731 milioi bideratu dira aurten.

■ **Otsailak 7**
Euskal Herri osoko 666 alkate eta zinegotzi abertzale, guztira 302 herri ordezkatuz, bildu ziren Iruñean Udal Ordezkarien Biltzarrean. Bergarako Udalaren izenean, Victoriano Gallastegi alkatea (EAJ), Jesus Mari Garitano (HB) eta Juan Mari Garitano (EA) izan ziren bileran.

■ **Martxoak 3**
San Juan auzoan dagoen Fit Automocion enpresak, atzerriko enpresa batek iaz Gipuzkoan egin zuen inbertsiorik aipagarrienaren saria jaso zuen, Hondarribin, Gipuzkoako Merkataritza Ganbararen eskutik.

■ **Martxoak 8**
Jakion S.L. Deba Garaiko baserritarren produktuak komertzializatu eta saltzeko sozietatean 2.440.000 pezetako akzioak (122 akzio) erostea erabaki zuen Bergarako Udalbatzak.

■ **Apirilak 12**
"Bakea eraikitzen, Euskal Herriak du hitza" lemapean Lizarra-Garaziko Akordioa sinatu zutenek egindako ordubeteko lan uzterako deiak erabateko erantzuna izan zuen Bergaran. San Martin plazan, Osintxun eta hainbat industria gunetan kontzentrazioak egin ziren eguerdiko 12etatik ordu bata arte. Plazakoa izan zen jendetsuena.



**EMAITZAK**
BERGARAN ETA ANTZUOLAN

| | | Ordezkariak | % |
|---|---|---|---|
| ELA | Bergara | 80 | 43,2 |
| | Antzuola | 9 | 45 |
| LAB | Bergara | 62 | 33,5 |
| | Antzuola | 8 | 40 |
| CC OO | Bergara | 10 | 5,4 |
| | Antzuola | 2 | 10 |
| UGT | Bergara | 14 | 7,5 |
| | Antzuola | 1 | 5 |
| ESK | Bergara | 9 | 4,8 |
| | Antzuola | - | - |

## ELA ETA LAB SINDIKATUAK NAGUSI

**ELA eta LAB sindikatuek erabateko nagusitasuna** erakutsi zuten Bergarako enpresetan egindako hauteskundeetan. ELA izan zen garaile 80 ordezkarirekin (%43,2); LABek 62 (%33,5) lortu zituen; UGTk 14 (%7,5); CCOOk 10 (%5,4), eta ESK sindikatuak 9 (%4,8). Aurreko bozketako emaitzekiko, **CCOOk behera egin zuen ESK sortu berriaren mesedetan.**

## Presoen alde

Urtean zehar euskal presoen aldeko hainbat eta hainbat ekimen egin dira, presoak Euskal Herrira hurbiltzea eskatzeko. Ohiko enkarteladez gain, besteak beste, Jose Mari Etxaniz eta Maria Eugenia Graciaren aldeko manifestazioak egin dira eta hainbat mozio onartu ditu Udalbatzak. Horretaz gain, itxialdiak egin ziren ekainean zehar udaletxean, Gipuzkoako Ahaldun-Kontseiluak irailaren 17rako egindako instituzio deiak ere izan zuen oihartzunik. Azaro eta abenduan zehar enkartelada iraunkorrak egin ziren San Martin plazan gose greban zeuden presoei elkartasuna adierazteko eta konpromiso eguna izan zen azaroaren 27n.





*"Konstituzioa sartzen digute ahotik, Bibliaren antzera aldaezina balitz moduan. Baina autodeterminazioa gure eskubide sakratua da"*

**Imanol Bolinaga, senatore ohia**
Urtarrilak 8



*"Euskal Herrian 2,5 milioi biztanle izanda, Gara egunkarirako mila milioi lortzean, herri honek izugarrizko indarra erakutsi du"*

**Anaje Narbaiza,**
**Baietz fundaziokoa**. Urtarrilak 29

## MARIAREN LAGUNDIAK 200 URTE

Otsailaren 5ean aurkeztu ziren, Mariaren Lagundiaren 200. urteurrena ospatzeko, urtean zehar burutzen joan diren ekitaldiak. Agintari politikoek, elizakoek eta ikastetxeko zuzendari eta irakasleek hartu zuten parte. Ikastetxeko eliza berriztua leporaino zela egin zen aurkezpen ekitaldia. Urte guztian zehar era askotako ekitaldiak antolatu dira, aurtengo apirilaren 23an Mariaren Lagundiko lehen monjak Bergarara etorri zirela 200 urte bete direla ospatzeko.



## Lizarra-Garaziko Akordioa

Akordioa sinatu zuten indar politiko, sindikatu eta gizarte taldeek herrian ere elkarrekin lan egiteko konpromisua hartu zuten, eta urtarrilaren 30ean talde guztietako ordezkariek argazkia atera zuten Kultur Etxean. EAJ, HB, EA, EB, Zutik, ELA, LAB, ESK, EHNE, STEE-EILAS, Senideak, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Jarrai eta Elkarriko ordezkariak bildu ziren argazkirako.



## APARKALEKU BERRIAK

Aparkalekuen arazoari irtenbidea eman eta Pazkuetan barrakak jartzeko toki bat atondu nahian, **kanposantu ondoko lursailean** obrak egitea erabaki zuen Udal gobernuak. Guztira, 160 bat autorentzako aparkalekua egokitu zen. Lanek 17 milioi pezetako aurrekontua izan zuten. Oposizioak, baina, lanak modu ilegalean, proiekturik aurkeztu barik egin zirelako, eta Arau Subsidiarioak esaten dutena bete barik egitea leporatu zion gobernuari. Bestalde, Aste Santuaren atarian amaitu zituzten **Zabalotegi**ko obrak. Kalea txukuntzeaz gain, 30 autorentzako tokia egokitu zen. Bolun biribila egin zen, eta, maiatzean zehar, **Bolu, Iraburu, Koldo Eleizalde eta Ibarra** kaleak asfaltatu zituzten.


# ETXEBERRIA

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA-OPARIAK

EGIN ZURE OPARIAK ETXEBERRIAN EROSIZ ETA PARTE HARTU 200.000 PTA ETA 100. 000 PTAKO EROSKETA-TXARTELEN ZOZKETAN

**Bidekurutzeta 16. BERGARA. Tf. 943 76 23 94 - 76 12 65**

**Maiatzak 3**
Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantzari hasierako onarpena eman zion Udalbatzak.

**Maiatzak 20**
Bergarako Udalak eta Ibargarai aldean eraikitzen ari diren etxeen sustatzaileek, Ortuibar eta Mauricio Arregi eraikuntza enpresek, hitzarmena sinatu zuten Errege Mintegiko patioaren ondoko etxeen azpian 63 autorentzako aparkaleku publikoak eraikitzeko.

**Ekainak 11**
Labegaraietako industrialdean zabalduko den GKN-Lazpiur S.A. enpresari 50 milioi pezetako diru laguntza ematea onartu zuen Udalbatzak. Enpresa berriak 53 lanpostu berri sortuko ditu Bergaran, eta 1.054 milioi pezeta inbertituko ditu hasieran lantegi berrian.

**Ekainak 20**
Mila Elortza Angiozarko liburutegiko arduraduna Angiozarko alkate izateko aukeratu zuten auzotarrek. San Migel jaietan hartu zuen kargu, Gorka Elortzaren lekukoa hartuz.

**Abuztuak 31**
Osintxuko Kofraixetan urtero egin ohi den txekorraren sakrifizio publikoa baimentzeagatik Bergarako alkatearen kontrako salaketa jarri zuen ANPBA izeneko animalien eskubideen aldeko gobernuz kanpoko erakunde madrildarrak. Horretaz gain, txekorraren sakrifizioa egin zutenen kontrako salaketa ere egin zuen.

## protagonistak



***Jabier Retegi***
8 urte Jaurlaritzan eman ondoren, azkenengo laurak Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailburu, MCCra itzuli zen urte hasieran, MCC eta beste enpresa batzuen arteko elkarlana bultzatzeko.



***Santiago Torres***
Jesus Gil Marbellako alkate eta Atletico de Madrideko presidentea espetxera eraman zuen epailea, Bergarako hirugarren epaitegiko arduraduna izan zen 1989ko uztailetik 1991ko ekainera.



**Batera.** EAJ, HB eta EAko zinegotziek agiri bateratua irakurri zuten Aberri Egunean.

## ABERRI EGUNEAN BAT EGINIK

Euskal Herriko Udal Ordezkarien Biltzarrak deituta, ekitaldi laburra egin zen Euskal Herriko udal guztietan Aberri Egunean. Bergaran ere 100 bat lagun bildu ziren San Martin plazan. Udaletxean ikurriña altxatu zen, eta **EAJ, EA eta HBko zinegotzi** batzuek testu bat irakurri zuten Udaletxeko balkoitik. Xamatz taldeko bi dantzarik aurresku dantzatu zuten. Herriko hainbat balkoitan ere ikurriña jarri zen.

## Mikel Zubimendi atxilotua Parisen



Mikel Zubimendi bergararra **Parisen atxilotu zuen martxoaren 9an** polizia frantsesak, beste bost lagunekin batera. Poliziak ETAko kideak izatea leporatu zien. Atxiloketarengatik protesta egiteko hainbat ekitaldi izan ziren herrian. Bergarako Udalak atxiloketen kontrako adierazpen instituzionala onartu zuen EAJ, EA eta HBren aldeko botuekin. Migelonek, azaroaren 1etik abenduaren 11ra arte (41 egun) **gose greban** eman zuen eta 18 kilo galdu zituen. Pariseko La Santeko kartzelan dago eta bere osasun egoera ez da egokia. Bestalde, **Iñaki Arietaleanizbeaskoak** abenduaren 2an ekin zion barauraldiari. 15 egunetan 8,5 kilo galdu zituen. Martutenen dago.




OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
**BERGARA**
943 76 20 49

Zubillaga z/g
**OÑATI**
943 78 24 13



*"Bai Euskarari kanpainak konpromisoa pizteko balio izan du. Konpromisoa praktikara eramateko orain da aukera"*

**Kristina Markina, Akulu AEK euskaltegikoa.** Otsailak 19



*"Agintari politikoen zain egon barik, hobe da gizarte osoak bakea bultzatzea, prozesuan buru belarri murgiltzea"*

**Unai Lopez, Bakearen Aldeko Ibilaldikoa.** Apirilak 16



## SEKULA BAINO TURISTA GEHIAGO

Aurten sekula baino egun gehiagotan zabaldu da Turismo Bulegoa: San Jose zubian, Aste Santuan, udan, eta Pilareko eta Kontsezioko zubietan. Orohar Euskal Herrian turismoak izan duen gorakadaren eraginez (suetenak zerikusi handia izan du) inoiz baino turista gehiagok bisitatu gaitu. Hala ere, abuztuan bereziki, zerbitzuen eta hostelaritza alorrean herriaren gabeziak agerian geratu ziren, taberna eta jatetxe gehienak itxita egon baitziren.



## Greba orokorra

ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuek eta EH, IU-EB eta Zutik taldeek **maiatzaren 21erako**, Pazkuetako eguakitza, **35 orduko lan astea aldarrikatzeko** egindako grebarako deiak erabateko erantzuna izan zuen Bergaran. Egun berezia izan zen jaiak egun horretan hasten baitziren. Horregatik, dendak arratsaldez zabaldu zituzten, eta tabernak 20:00etan. Jaiak normal hasi ziren. Industrian erabatekoa izan zen erantzuna. Goizean piketeak ibili ziren, eta hika mikak izan ziren zabaltzeko asmoa zuten dendari batzuen eta sindikalisten artean.

## GAZTE LOKALAREN ALDEKO ASTEBURUA

Arrakastatsua gertatu zen Gazte Lokalaren alde herriko hainbat gaztek antolatutako Gazte Asteburua **maiatzaren lehenean**. Hainbat ekitaldi antolatu zituzten, tartean Bideberriko herri batzakaria, 250 bat gazte bildu zituena. Herriko gazteendako gune autogestionatu baten aldeko txostena eta estatutuak aurkeztu zituzten. Bestalde, ekainaren 9an, **Gazte Lokalaren aldeko proiektuari** sarrera eman zioten Udaleari, eta alkatearekin bilera egiteko deia egin zuten. Era berean, EA eta EHko ordezkariekin bildu ziren gazteak. Irailean, Udalarekin harremanetan jarri ziren eta bilerei ekin zieten gaiari irtenbidea topatu nahian.







ARATZ

Zurradero 6, behea
Telefonoa: 943 76 70 67 Mobila: 607 48 71 19

ALBAITARI KLINIKA

Aratzek gabon zoriontsuak eta urte berri ona opa dizkie bezero guztiei

**Irailak 24**
Antton Jaime Garraio diputatuak datorren urtean Bergara inguruan egingo diren hainbat errepideren egitasmoari buruzko azalpenak eman zituen Udaletxean. Ekialdeko saihesbidea, Amillagatik San Juanerainoko errepidea, Osintxuko sarrerako bidegurutzea edota San Prudentzioko bidegurutzea egingo dituzte datorren urtean.

**Irailak 27**
Urteagan babes ofizialeko 36 etxebizitza eraikitzeko, Jaurlaritzari orubearaen zesioa egitea onartu zuen Udalbatzak.

**Urria**
Espainiako gobernuak euskal presoak mugitzeko irailean hartutako erabakiak hiru preso bergararri eragin zien: Jose Mari Etxaniz Puerto de Santa Mariatik Topas-era (Salamanca) eroan zuten; Iñaki Aietaleanizbeaskoa Ourensetik Martutenera, eta Luis Etxeberria Burgosetik Martutenera.

**Urriak 17**
Aiñhoa Arbelaitz datozen lau urteotarako Osintxuko auzo alkate izateko aukeratu zuten.

**Urriak 20**
Victoriano Gallastegi Debagoieneko Mankomunitateko presidente aukeratu zuten.

**Urriak 25**
Euskadiko Udal Intsumisoen Elkartean (Eudima) Bergarako Udalaren ordezkariak aukeratu zituen Udalbatzak. Mikel Eguren (EH) eta Kontxi Irizar (EA) izango dira ordezkariak.

## protagonistak



***Maider Sedano***
22 urteko urretxuarra Bergarako Gazte Zerbitzuko arduradun lanetan hasi zen maiatzean. Maider Sedano Pedagogian lizentziatua da. Bere zeregina, gazteek intereseko duten informazioa ematea da



***Julian Aranburu***
50 odol ateraldi egiteagatik urrezko domina jaso zuen, maiatzaren 2an, Arantzazun Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteak egin zuen urteko batzar orokorrean.



**Lehen harria.** Lehendakariak eta Aldun Nagusiak jarri zuten lehen harria Basalgon.

## EIBAR-GASTEIZ EGITEN HASI ZIREN

**Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak**, Roman Sudupe Gipuzkoako Diputatu Nagusiak eta Victoriano Gallastegi alkateak Eibar-Gasteiz autopistaren **lehen harria** jarri zuten **maiatzaren 27**an Basalgon. Obrak ekain amaieran hasi zituzten, eta aurreikusitako bidetik doaz. Autopistaren **kontrako ahotsak** ere entzun dira: ekainaren 12an manifestazioa egin zen Bergaran. Bailara mailako manifestaziorako deia eskualdeko talde ekologistek, gazte talde eta asanbladek, Zutik-ek, HBk eta IU-EBk egin zuten, eta jendetsua izan zen.

## Ongi etorriak

Martuteneko espetxean 19 hilabete eman ondoren, **uztailaren 21ean** aske laga zuten **Jose Luis Elkoro** Mahai Nazionaleko kide eta Bergarako alkate izandakoa. Uztailaren 23an ongi etorria egin zitzaion San Martin plazan. Bestalde, Alcala Meco eta Navalcarneroko espetxeetan hiru urte eta erdi eman ostean, **apirilaren 26an** etxeratu zen **Iñaki Arenaza** bergararra. San Martin plazan ongi etorria egin zioten herritar ugarik.





SANTOS Irrati-TB
Masterreka, 2
BERGARA
☎ 943 76 26 10
SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOA
- *Elektragailuak*
- *Bideoa*
- *Sukaldeko altzariak*
- *Soinua*
- *Telebista*
- *Argiztapena*
- *eta Airtel telefono mobilak!*

*URTE BERRI ON!*



*Jose Mari Etxanizi kodigo penaleko erredentzioak ez dizkiote aplikatu nahi, turko-burutzat hartu dute*

**Markos Gabilondo, Bergarara Plataformako kidea.** Ekainak 4



*Turista askok uste du Bergara herri industriala dela, eta harritu egiten dira etxe dotoreak eta ingurune berdeak ditugula ikustean*

**Vicky Bascones, Turismo Bulegoko arduraduna.** Uztailak 2

## EAJ-EA GARAILE, VICTORIANO ALKATE ETA UDAL GOBERNU ABERTZALEA



Victoriano Gallastegi EAJ-EA koalizioaren alkategaiak lortu zuen botorik gehien (3.843) ekainaren 13ko Udal hauteskundeetan. EH izan zen bigarren indarra 3.437 botorekin. Zinegotziei dagokienez, EAJ eta EAk 8 lortu zituen, lehen baino bat gutxiago. EHk, berriz, 7, lehen beste. PSE-EEk eta PPk bana lortu zituzten. Nabarmentzekoa da EHk bototan izan zuen gorakada, eta PPk lehen aldiz zinegotzia lortu zuela Bergaran. **Luis Martinez Espronceda** da PPk Bergaran izan duen lehen zinegotzia. Bestalde, hauteskundeetan zerrenda botatuena izateari esker, Bergarako alkate aukeratu zuten **Victoriano Gallastegi uztailaren 3an**, EAJ-EAren zortzi zinegotzien aldeko botoekin eta EH, PSE-EE eta PPren abstentzioarekin. Abuztuko oporren bezperan egindako Osoko Bilkuran eratu ziren legealdi berriko batzorde informatzaile iraunkorrak, eta batzordeetako buruak izendatu ziren. EAJ, EA eta EHren artean banatu ziren Udal gobernuko organoak. EAJk hartu zuen sei batzordetako ardura, EAk birena eta EHk beste birena. Legealdi berrirako EAJ, EA eta EHren artean adostutako gobernu ituna **irailaren 2an** sinatu zuten hiru indarretako ordezkariek Udaletxean.



## EGUREN TAILERRA

Eguren tailerra azaroaren 19an bota zuten, autobus geltoki berria eraiki bitartean, behin-behineko geltokia bertan jartzeko. Esan behar da autobus geltoki berria Torrekuan jartzeko asmoa zuela Udalak, eta proiektua onartu zuela, baina Urkuluko uren tuberia dela eta ezinezkoa izango da bertan jartzea, eta kokapen berria aztertzen ari dira orain.




## Frontoi berria Angiozarren

**Angiozarko Arbiaska** pilotalekua inauguratu zen urriaren 26an. Bidean hainbat ezuste gertatu eta gero, Victoriano Gallastegik **eta Mila Elortzak**, Bergara eta Angiozarko alkateek, inauguratu zuten frontoi berritua. Lanen **aurrekontua 63 milioi pezetakoa** izan da.

Gabon egun zoriontsuak izan ditzazuela!!

**Bidekurutzeta 6**
**Tf. 943 76 10 25**

Gracian

Usaindegia - Mertzeria

Urte berri on!!

**Urriak 29**

Alvaro Amman Garraio sailburua Deba Arroko alkateekin bildu zen Aramaion, bailaran tranbia jartzeko egitasmoa azaltzeko. Alkateek begi onez hartu zuten, bailarako trafiko arazoak arintze aldera soluzio egokia izan litekeelakoan.

**Azaroak 20**

Euskal Herrian Euskaraz taldeko 10 bat lagunek enkartelada egin zuten azaroaren 20an. "Justizia espainola Euskal Herritik ezabatu" zioen pankartari eutsiz, euskaldunondako benetako justizia euskalduna aldarrikatu zuten EHEko kideek.

**Azaroak 29**

Udalbiltzaren sorkuntza eta helburuekin bat egitea onartu zuen Udalbatzak EAJ, EH eta EAren aldeko botoekin. Euskal Herriko udalen arteko harremanak sakontzeko, senidekintzan lan egiteko eta Euskal Herri osoaren alde aritzeko asmoz sortu zen Udalbiltza. Bestalde, ETAk su-etena bertan behera lagatzeko hartutako erabakiak ez zuela eraginik izango Udaleko gobernuan adierazi zuten gobernukideek.

**Abenduak 2**

Bergarako bost enpresa saritu zituen Eusko Jaurlaritzak gas naturala erabiltzen aintzindariak izateagatik (orain dela 16 urtetik). Altos Hornos de Bergara, Itesa, Tratamientos Termicos, Marcos Laskurain eta Industria Fegar enpresek sari bana jaso zuten, Josu Jon Imaz industria sailburuaren eskutik, Udaletxean.

## protagonistak



***Paula Gallastegi***

100 urte bete zituen otsailaren 20an. Jose Pildainen alarguna Angiozarren jaio zen, eta gaztetan Bergarara etorri zen bizi izatera. Bi alaba, 9 biloba eta beste 13 birloba ditu.



***Patricia Urrutia***

28 urteko Ekonomia eta Enpresa lizentziatuak Iñazio Arregi ordezkatu du ikasturte berrian Aranzadi Ikastolako zuzendari karguan. Gerente lanak egingo ditu, batik bat, aurrerantzean.



## BEHEKO ESTAZIOARI AGUR

**Abenduaren 17an** bota zuten Beheko Estazioa. Goizeko 12ak aldera ekin zion lanari eskabadorak eta arratsaldeko lehen ordurako etxea eskobro bihurtuta zegoen. Mende honen hasierako urteetako eraikinari dagoenetan eusteko ahaleginak ustelak bihurtu dira, izan ere Debagoieneko ondarea babesteko **Kapirixo elkarteak** eta trenaren aldeko hainbat elkarte jo eta ke aritu dira azken bi hilabeteotan: **firma bilketa, ibilaldiak, hitzaldiak, alkatearekin eta Jaurlaritzako ordezkariekin bilerak...** Ibargaraiko garapenak eskatuta, mende hasierako eraikuntzaren ordez, etxe berriak egingo dira. Autobus geltoki berria non jarriko den jakiteko dago oraindik, baina behin behinekoa lehengoaren aurrean jarri dute.




## Bakea eraiki

ETAk su-etena hausteko hartutako erabakia zela eta, **bakearen aldeko bost minutuko ixilunea** egin zen **abenduaren 3an** (erakunde armatuak su-etena amaitutzat ematen zuen eguna) Udaletxe aurrean. "Bakearen beharra dugu" lelopean Juan Jose Ibarretxe lehendakariak egindako deiari erantzunez, jende ugari hurbildu zen San Martin plazara.

FEGAR

**Sukaldeak. Horma armairuak. Neurrira egindako altzariak. Ateak eta leihoak. Arozlanak.**

Bergara ☎ 943 76 58 86 / 670 765 886

*Urte berri on!!*



*"Ikastetxeak enpresa batek bezala funtzionatu beharko luke, jestio onarekin, eskaintza ondo definituz eta bezeroak zainduz"*

**Miguel Angel Elkoroberezibar, irakaslea.** Uztailak 9



*"Euskaldunok gara nekazal etxeen kontsumitzaile nagusiak, gure inguruan mugitzea eta ezagutzea gustatzen zaigulako"*

**Amaia Ilarduia, "Nekazalturismoa"ko gerentea.** Abenduak 17

## URTEKO AUTO SALDUENAK

1999ko utarriletik urrira arte (biak barne)

| Marka eta modeloa | Unitateak | Marka eta modeloa | Unitateak |
|---|---|---|---|
| **1.** Opel Astra | 46 | **12.** Hyundai Galloper | 12 |
| **2.** Citroen Xsara | 37 | **13.** Audi A4 | 12 |
| **3.** Ford Focus | 29 | **14.** Seat Ibiza | 11 |
| **4.** Citroen Xantia | 21 | **15.** Citroen Saxo | 11 |
| **5.** Opel Corsa | 20 | **16.** Renault Clio | 9 |
| **6.** Renault Scenic | 17 | **17.** Peugeot 206 | 8 |
| **7.** Opel Vectra | 16 | **18.** Ford Fiesta | 7 |
| **8.** Renault Megane | 16 | **19.** Nissan Primera | 7 |
| **9.** Renault Laguna | 16 | **20.** Audi A3 | 7 |
| **10.** Peugeot 306 | 15 | **21.** Volkswagen Passat | 7 |
| **11.** Volkswagen Golf | 14 | | |

*Iturria: Bergarako Udala*



Opel Astra.

## TENPERATURA ETA EURIA

Tenperatura batazbestekotan emana dago; euria, kopuru absolutotan

| HILEZ HIL | °C | l/m² |
|---|---|---|
| Urtarrila | 7,60 | 143,4 |
| Otsaila | 6,99 | 192,2 |
| Martxoa | 9,56 | 176,5 |
| Apirila | 10,63 | 116,6 |
| Maiatza | 16,87 | 97,5 |
| Ekaina | 17,76 | 53,1 |
| Uztaila | 25,93 | 47,6 |
| Abuztua | 21,65 | 24,4 |
| Iraila | 19,93 | 72,6 |
| Urria | 15,35 | 35,9 |
| Azaroa | 15,79 | 253,2 |

| Egunik euritsuenak | l/m² |
|---|---|
| Azaroak 6 | 54,0 |
| Martxoak 5 | 40,7 |
| Urtarrilak 8 | 31,4 |
| Azaroak 18 | 29,6 |
| Azaroak 14 | 28,7 |

| Egunik beroenak | °C |
|---|---|
| Uztailak 2 | 35 |
| Irailak 2 | 35 |
| Ekainak 24 | 34 |
| Uztailak 1 | 34 |
| Irailak 8 | 33 |

| Egunik hotzenak | |
|---|---|
| Urtarrilak 31 | -4 |
| Otsailak 1 | -3 |
| Otsailak 13 | -3 |
| Otsailak 14 | -3 |
| Azaroak 27 | -3 |

### AZKEN URTEETAKO DATUAK

| Batazbesteko tenperatura | °C |
|---|---|
| 1994 | 14,37 |
| 1995 | 13,89 |
| 1996 | 13,41 |
| 1997 | 14,60 |
| 1998 | 14,15 |
| 1999 | 15,27 |

| euria | l/m² |
|---|---|
| 1994 | 1.350 |
| 1995 | 1.240 |
| 1996 | 1.758 |
| 1997 | 1.381 |
| 1998 | 1.490 |
| 1999 | 1.213 |

*Iturria: Luis Mari Agirre*

BANKINTER

Herri Lagunak 2
Telefonoa: 943 76 91 51 / 76 91 52

GABON ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU DENOI!

Mailegu pertsonalak
Mailegu hipotekarioak
eta aurrezteko produktuak



MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA

# Mac Guffin izeneko efektuaren zain

33 urte, bergararra ■ Arte Ederretako ikasketak egin zituen Leioako Fakultatean ■ 1991n artista gazteei zuzenduriko "Noveles" saria eskuratu zuen ■ Euskal Herrian eta hemendik kanpo hainbat sari jaso ditu ARGAZKIA:

Jaioterriaren gainean Manuk beste hitz egiten duenik ez dut sekula ezagutu. Bergarako jaiak egun ikutu ezinak dira haren egutegian, gero eta estuagoa den egutegian, gainera. Aspaldiko laguna dut Manu; gaztetan hainbat margo lehiaketetan topo egin genuen eta Artelekun ere elkarrekin aritu ginen duela urte batzuk. Gaur egun lanerako estudioa konpartitzen dugu Herreran.

Hogeita hamahiru urte izanda, estatuko bildumarik onenetan dauzka lanak, eta, dagoeneko, eginak ditu hamarretik gora bakarkako erakusketa.

> 33 urte izanda, estatuko bilduma onenetan ditu lanak eta bakarkako erakusketa ugari egin ditu

Bakoitzak bere ikuspuntua landu beharra duela jakinik, haren lan-modua ulertzeko Hitchcockek, ironikoki, "Mac Guffin" izenarekin definitzen zuena aipatu behar. "Mac Guffin" hori, berez, ez da ezer. Tramaren haria eragiten duen pultsioa da. Itxura baten, gauzatzen erraza den akzio ildo horrek narrazioa korapilatu eragiten dio Manuri, azkenean, osotasuna eraikiko duten hainbat eta hainbat sekuentziatan xehatuz, benetako oztopo-lasterketa bailitzan.

Gero eta ohikoagoa da erakusketak izenburu baten inguruan batzea: gertatzen ari den azkena "iluntasuna, itzala"ren inguruan eratuta dago. Iruñeko gotorlekuan izango da ikusgai urtarrilaren erdialdera arte, eta kutsu zinematografiko handia izango du. Fotogramekin gertatzen den antzera, bere koadroen bitartez ikusleak bere istorio propioa lantzea bilatu nahi du.

Bestalde, estudioan ematen du denbora Manuk, margoetatik ordenadorera. Lanean aldartetsua denez (orain nerbioso samar dabil apirilean aita izango delako), gauzak argi izan arte ez da margotzen jartzen. Horrela, aurrera egiten du gure bizitzak, artistak ustez berezkoak lituzkeen baloreak desmitifikatuz, eta egunerokotasunaren atzaparren mendean, beste edozeinaren moduan. Sikiera, lanbide kreatiboena balitz gurea...<

**JOSE RAMON AMONDARAIN**



(Donostia, 1964) Margolaria. Urtarrilaren 21etik aurrera bere lanak Bilboko Windsor galerian ikusgai izango dira.

NINIKA

Gabon zoriontsuak izan ditzazuela denok!

LOREAK MUNDU OSOAN

INTERFLORA

loradenda

Jaiotze-ospazkizunak, ezkontzetako eliza eta jatetxea... dena apainduko dizugu!

Ramon Maria Lili 8. Tf. 943 76 10 01




# ARREGI AROZTEGIA

**SUKALDEAK**
**Arozlan mekanikoak**
**Ateak**
**Horma armairuak**
**Tarimak eta Parketak**
**Neoprenozko juntadun egurrezko leihoak**
**PVCzko leihoak**







**TAILERRA:** Urteaga 20. 943 76 11 73
•
**ERAKUSKETA:** Bidekurutzeta 38. 943 76 31 03



FIAT PUNTO BERRIA

MARKIEGI autoak

FIAT

Alfa Romeo

Leizeaga 1. BERGARA.
Tf. 943 76 35 09 Faxa 943 76 56 76

Zatoz Markiegira
eta proba ezazu
auto espezie berria

Mizpildi 8
943 76 12 32



MIZPILDI
OKINDEGIA



Ondo pasa ditzazuela Gabon jaiak!

Eta **kafe** **dastaketa!**

Matxiategi 1
943 76 72 73

Aitarengandik dator semea, dio esaera zaharrak. Aita, Gaztelu, eta semea, Aranzabal. Aitak bere baserriaren izena famatu egin zuen bezala, semeak abizena egin du ezagun. Ezkerretik mugitzea atsegin du, eta beti eskuinera begiratuz jokatzen du. Defentsan edo zelai erdian jarri izan da eztabaida, baina nire ustez defentsa da, argi eta garbi. Ez ondo defendatzen dakielako, baizik eta bere jokoa osoosorik erakusteko aurrean metro asko behar dituelako. Zelai erdian ari denean, itota ikusten dut, lekurik gabe, eta bere buruari jira-birak ematen hasten da. Orduan, surrunpioa bezala bere jokaldiak azpira joaten dira. Atzetik, berriz, bere zango luzeei esker, azkar eta dotore egiten ditu gauzak, beste ikuspegi batetik. Teknika ona du, eta goiko jokoa hobetzea, burua behar bezala sartzen ikastea, falta zaio, batez ere, defentsa lanerako.

De Pedrok eta berak ezker hegal zoragarria osatzen dute Realean. Buruz jokatzen dute elkarrekin. Aranzabal taldekide ona da, bere lagunen laguna eta, esan didatenez, despistatua, gaurko hainbat gazte bezala. Zurrumurruak zabaldu dira Bartzelonara joango ote den. Berak joateko asmoa azaldu du, eta normala da. Oraindik gaztea da, Realari urte ederrenak eman dizkio, eta legezkoa da orain diru eta ospe gehiago bilatzea. Gainera, txuri-urdinek diru freskoa jasoko dute beste Aranzabal gehiago harrobitik atera ahal izateko.

> Realari urte onenak eman ondoren, zurrumurruak zabaldu dira Bartzelonara joango ote den

Inor ez dadila haserretu Bartzelonara joan nahi badu. Sergik jokatzen du bere leku berean, baina Van Gaalek berarengan konfiantza galdu duela dirudi. Ekaineko Eurokopan apostu egingo nuke bergararrak baietz titular postua kendu selekzioan; batez ere, ordurako Bartzelonak fitxatu badu. Sarritan, talde handian jokatzeak ateak irekitzen ditu.

Bergararrek harro egon behar dute Agustin Aranzabalekin. Bere ama ez dut ezagutzen, baina zorionak merezi ditu. Aurpegia behintzat aitarena du, baina kostako zaio haren tamainako bihotza izatea. Ez da erraza Gaztelu baten bezalako bihotza edukitzea.<

**XABIER AZKARGORTA**



(Azpeitia, 1953) Futbol entrenatzailea. Bolivia eta Txileko selekzionatzaile ohia. "Futbolsofia" liburua kaleratu berri du.



AGUSTIN ARANZABAL

# Aitarengandik dator semea

26 urte ditu ■ 1993ko otsailaren 21ean debutatu zuen Realarekin, A Coruñan ■ Selekzioan ere aritu izan da Clemente eta Camachoren aginduetara ■ 1998ko Frantziako Mundialean izan zen ARGAZKIA: BENITO CANTERO ETA AGUSTIN GURRUTXAGA


Zuzen-zuzenean etxera eramaten dizugu!

Martoko 32, behea
BERGARA

Larrañaga
BANATZAILEA

Txanpaina, Errioxako ardoak, likoreak, Gabonetako saskiak...

Zorionak!

Tf. 943 76 45 94
Mobila 907 - 65 76 34

# Mendearen

Batzuek bestelakorik esaten badute ere, egun gutxi barru XX. mendea amaituko da, eta urtarrilaren 1ean urte berriaz gain, mende eta milurteko berria ere hasiko dira. Zerbait amaitzen denean errepasoa egiteko garaia etortzen da eta amaitzear dagoen milurtekoaren errepasoa ia ezinezkoa iruditu zaigunez, mendearena, XX. mendearena, egitea erabaki dugu. Horrela, mende honetako hamarkada bakoitzean jaiotako bergarar bat aukeratu eta bere lehen urteetan bizitakoa abiapuntutzat hartuz, azken 100 urte hauetako gertaera nagusiak errepasatu ahal izan ditugu.



***Bergarako Emakume Abertzale Batza*** *(1932). Goiko hilara, ezkerretik hasita: Ageda Agirrezabal, Jesusa Irala, Juste Amenabar, Eulogi Agirrezabal, Miren Agirreolea, Juanita Azkarate, Asuntxi Idarreta. Bigarren hilaran: Lasa hoteleko neskamea, Maria Azkarate, Juanita Zabala, Luisa Belbelzu, Isabel, Maria Errasti, neskamea. Hirugarren hilara: Anjelita Marcó, Luisita Berasategi, Maria Amenabar, Juli Ereñaga, Balbina Idarreta, Maria Oianguren (ikastolako irakaslea). Azken hilara: Maria Berasategi, Maria Teresa Zabala, Maria Lasturrika, Bittori Oñate, Nieves Zabaleta.*




Joakin Ostolaza Goñi

## *"Alfonso XIII.a Donostian sarri ikusten zen"*

Zarautzen jaio zen 1908ko irailaren 17an. Zazpi urterekin etorri zen Bergarara familiarekin. Eskolan Epaitegia dagoen etxean, Mariano Machorekin ibili zen 14 urte bete arte.

Futbolean aritu zen Izarra taldean, besteak beste, Alfonso Alberdi, Marcial Garitano, Patxi Zabala, Francisco Arrieta eta Eugenio Ostolazarekin.

Soldadutzara arte lanean ibili zen tailer askotan, baita aitak eta Galarragak zutenean ere. Marinara joan zen 3 urterako. Behin, maniobretan ari zirela, Alfonso XIII.aren bisita izan zuten. Baina Joakinek erregea aurretik ikusita zuen Donostian, kalean paseoan.

Erregealdiaren azken urteak gogorrak izan ziren Primo de Riverarekin; gero, Errepublikarekin askatasun apur bat etorri zen. Ordurako, Joakin etxean zegoen.

Baina berriz joan zen kanpora, gerrara. Hiru urtean zehar toki askotan ibili zen, Durangon azken aldian, eta bertan ezagutu zuen emaztea izango zen Agapita Etxaburu.




Maria eta Juste Amenabar Gallastegi

## *"Bergara oso abertzalea zen gerra aurretik"*

Maria 1911ko apirilaren 23an jaio zen eta Juste, 1914ko uztailaren 24an, Zubieta kalean. Eskolan, Xixili maistrarekin hasi ziren, eta gero monjetara joan ziren. Eta ondoren, lanera, aitak zuen zapata tailerrera. Tarteka, Santa Marian parrokiara joaten ziren Nemesio Etxanizekin antzerki-lanak prestatzera.

Aita abertzalea zen, eta txikitatik joaten ziren familiakoak Batzokira. Emakume Abertzale Batzako partaide ziren bi ahizpak. Batzokia Lasaren parean zegoen, eta dantzari taldea sortzeaz gain, ikastola ere martxan jarri zen.

Hau guztia gerrarekin amaitu zen. Familia honek Bergaratik alde egin zuen, Durangora, eta han hil ziren aita eta anaia gazteena, bonbaketa batean.

Bergarara itzuli ziren, eta gerra amaitu eta urte batzuk geroago, Amenabar jantzi-denda jarri zuten.

Justek antzerkigintzan jarraitu zuen, eta Ernai izeneko taldea sortu zuen 60. hamarkadan.

Nerea
Lentzeria • Kortse-denda • Bainujantziak
Simon Arrieta plaza 1 Tf. 943 76 19 52
Gabon zoriontsuak izan ditzazuela!

# erretratua




Donato Ibarguren Unanue

## *"Mutil gazte-gazteak mobilizatu zituzten gerrarako"*

Zaldumendi baserrikoa da; 1920ko abuztuaren 7an jaio zen Donato. Txikitan, artzantza eta eskola tartekatu zituen, eta 16 urterekin Algodoneran sartu zen. Han ibili zen 18 hilabete geroago mobilizatu egin zuten arte. Lanean ari zela, bonbaketa batek kalte ugari eragin zituen lantegian, eta 7 hildako izan ziren, bera ere zaurituta suertatu zen.

Toki askotan ibili zen gerran, Afrikako Indarrean, eta Valentzian zegoela amaitu zen gerra, baina beste bost urte egin zituen, "Batallón de trabajadores"en, Burgosen. Noizean behin etxera etortzen zen, bide batez, kontrabando apur bat eginez. Europako gerrara noiz eramango ote zuten beldur egon zen.

Azkenik, 1944an itzuli zen etxera, eta indar-zentralean lanean aritu eta gero, baserriaren kargua hartu zuen.

Orduan izan zuen nahikoa denbora lehenengo andregaia, eta gero emaztea izan zen Felisa Iturrinorekin erromeriaz erromeria ibiltzeko.




Maite Suinaga Azkarate-Askasua

## *"Gerra ostean ezin zen euskaraz kantatu"*

Hamabi anai-arreben familian jaio zen Maite, 1938ko martxoaren 11n.

Eskolan, Ospitalean, Enseñantzan eta frontoian ibili ondoren, gurasoen Paldai tabernan ibili zen lanean. Haurtzaroko oroitzapen gehienak bertakoak ditu.

Orduko emakume askok ehungintzan egiten zuten lan, baina ezkondutakoan utzi egiten zuten. Bere eginkizuna familia eta etxea zaintzea zen.

Gerra ostean, Radio Intercontinental bezalako emisorak entzutea debekatuta zegoen, baita abesti batzuk ere. Jendea kartzelara bidaltzen zuten euskaraz abesteagatik, eta fusilatuta hiltzera kondenatu zituzten batzuk. Baina Maitek euskaraz abesten zuen, umea zela, Gabonetan, beste hiru lagunekin; Bego, Mila eta Isabel Gallastegirekin. Etxez etxe ibiltzen ziren eskean.

Gurasoengandik jaso zuen musikarekiko zaletasuna. Horregatik, seguraski, dago hainbeste Suinagatar Orfeoian.

Maite, orain jubilatuta badago ere, Loiola Irratia eta Deiako korrespontsala izan da.




Jose Antonio Agirre Mujika

## *"Kanpoko jende asko etorri zen Bergarara lanera"*

Zapaterikua auzoko tabernakoa da Jose Antonio, 1944ko uztailaren 4an jaioa. Seminarioan ikasi zuen, eta gero Elementalean. Futbolari izan zen, bost urtez, herriko taldean. Tartean, soldadutzara joan zen 19 urterekin, Gazteizera, ia 18 hilabeterako.

Motorra zeukan eta festaz festa ibiltzen zen lagunekin. Ariznoa, Tio Pitx eta Txarrantxa dantzalekuetan ere ibilia da. Sasoi hartan helduta egin ohi zen dantzan, eta gizonak joaten ziren emakumeengana. Plazan, Espoloian eta San Pedro kaleko dantzaldiak ere gustoko zituen.

Lanean, 16 urterekin hasi zen. Orduan lana soberan zegoen, eta kanpoko jende asko etorri zen Bergarara. Hemen ondo irabazten zenez, jende gehiago eta familia ekartzen zuten. Algodonera, Altos Hornos eta Mayc ziren orduko lantegi indartsuenak.

Gaur egun, Toki-Ederreko Erosleko arduraduna da, eta beldur dio 2000 urteak ekarriko duen euroari.

ARDATZA
Brikolaketa
Masterreka 4 behea ☎ 943 76 18 93



Ateak eta zokaloak, horma armairuak, koadroen enmarkazioa, era guztietako moldurak, apalak...

ESKULANETARAKO GAIAK

Gabon zoriontsuak



***Mende hasiera***
*Ezkerretik hasita: Marcos Ostolaza (aita), Joakin Ostolaza (altzoan), Ignacio Maria Galarraga, Eugenio Ostolaza, Jesus Ostolaza, ?. (1914 inguruko argazkia).*



***Suinaga Azkarate-Askasua sendia***
*Goiko hilaran: Juanito, Lauri, Genaro. Bigarrenean: Pilar, Antoni, Anita, Mª Luisa. Hirugarrenean: Maribel, Ventura (ama), Florentino (aita), Mari Tere. Azkenean: Miren eta Feli. Vicente falta da.*



***Lambrettak eta Vespak***
*Ezkerretik hasita: Arantxa Gantxegi, Aintzane Bideluze eta Jose Ramon Gantxegi.*




Aintzane Bideluze Zangitu

## *"Franko hil zenean txanpainarekin ospatu zuen jendeak"*

San Lorentzo auzoan jaio zen Aintzane, 1955ko urtarrilaren 6an. Eskolan toki askotan ibilitakoa da: Masterrekan, Zubietan, frontoian eta, azkenik, Mariaren Lagundian. Hamalau urte zituenean, aitak zuen lantegian hasi zen lanean, eta hor egon da 1997ra arte, Ormazabal hotela ireki arte.

Gazte denboran, Komenio kaleko Juventudesen lokalean egoten zen lagunekin. Guatekeak egiten ziren bertan, ia astero, punta-puntako taldeen abestiekin: Beatles, Genesis edo Jethro Tull. Aintzanek, gainera, hippyen mugimendua ere ezagutu zuen, moda, batez ere: alkondara loradunak, barren zabaleko prakak.

Francoren azken urteetan gazteek politika kontuetan interes handia zuten, eta hil zenean, berak 20 bat urte zituela, jendeak txanpainarekin ospatu zuen. Demokrazia zetorren, eta jendea pozik zegoen. Aurretik, ordea, guardia zibilaren kontrolak, ikurriña jartzeagatiko istiluak eta ETAren sorrera ere ezagutu zituen.




Josu Asula Txurruka

## *"Gure adineko batzuk HIESak jota hil dira"*

Josu 1965eko abenduaren 24an jaio zen. Aranzadi ikastolan eta Elementalean ikasi zuen eta, azkenik, Elorrion. Lanean berehala hasi zen, bere adineko asko unibertsitatean ikasten ari zirela.

Orduko gazteak drogaren arazoak harrapatu zituen, baita HIESak ere. Porro asko erre dira Josuren kintan, baina droga gogorragoak ere gertu ibili ziren. Horregatik hil ziren HIESak jota adin bereko bergarar batzuk.

Gaztetxea orduan sortu zen, lehengo "Juven"en izaera pixka bat aldatuz. Asteburuetan giro ona egoten zen Bergaran, kaleko tabernez gain, Tartufo eta Txibisto modan zeuden eta.

Giro horri asko lagundu zion euskal musikaren iraultzak: Ertzainak, Zarama, La Polla Records, Eskorbuto eta Rip taldeek, besteak beste.

Antimilitarismoa ere orduan hasi zen indarra hartzen. NATOn sartu edo ez sartu erabakitzeko erreferenduma orduan egin zen eta hura izan zen Josuk lehen aldiz botatu zuen aldia.



Aprobetxa itzazu
**Gabonetako eskaintzak**

TINDATEGIA
**RENTERI**
TINDATEGIA



***Ikerleku 4, behea (Novedadeseko kantoia) 943 76 19 68***
***Zure konfidantzazko tindategia. Gure esperientzia eta profesionaltasun guztia zeure zerbitzura.***




Leire Guridi Alustiza

## *"Langabeziak gehiago jo du emakumea"*

Leire 1971ko azaroaren 15ean jaio zen. Lehenik, Aranzadi ikastolan eta Institutuan ikasi zuen, eta gero unibertsitatera joan zen Enpresaritza egitera. Lizentziatua izan arren, administrari lanpostua lortu du, lanpostu finkoa ez den arren. Emakume izateak ere ez dio larregi lagundu. Gurasoekin bizi da, bere etxea erosteko edo alokatzeko egonkortasun ekonomikorik ez du eta.

Bere adinekoen beste arazo batzuk ere ezagutu ditu, intsumisioarena, adibidez. Koadrilako batzuk intsumisoak dira, eta epaiketak gertutik jarraitu ditu. HIESa ere ezagutu du, gazteago zenean gaixotasuna oso hedatuta zegoelako eta prebentzio-kanpainak ugariak zirelako.

Gaztetxean denbora asko egiten zuen, eta orain haren falta somatzen du, izan ere, gazteek, tabernez gain, ez dute beste lokalik.

Euskal preso eta errefuxiatuen egoeraz ere kezkatuta dago, eta ETAk su-etena apurtzea ez du gustura hartu.

2000 urteak gai hauek guztiak konponduko dituelakoan dago Leire.




Xabier Calvo Oregi

## *"Gazteek ez dute tabernarendako alternatibarik"*

Gaur egungo gazte asko bezalaxe, Unibertsitatean dago Xabier. 1980an jaio zen, ekainaren 8an. Aranzadi ikastolan hasi, Institutuan gero eta orain Informatika Ingenieritza ari da ikasten.

Ordenadorea institutuan ezagutu zuen, 2. mailan, eta gaur egun etxean bat dauka. Karrera amaitutakoan, horixe izango da bere lan-tresna.

Txikitan, Seminarioko patioan egoten zen lagunekin jolasean. Bizkortutakoan parkera pasatu ziren, eta orain tabernaz taberna ibiltzen dira, besterik ez dutelako, gazteentzako lokalik ez dagoelako.

Gaur egungo gazteak arduratzen dira munduan gertatzen denaz. Badute egunkaria irakurri eta telebistako albistegiak ikusteko ohitura. Irratia gehiago entzuten dute, Euskadi Gaztea batez ere. Egunean daude musika kontuetan.

Bere arazo larriena, hain zuzen ere, dirua da, gehienen diru-sarrera bakarra gurasoek ematen dieten "paga" besterik ez delako.




Ane Morillas Igartua

## *"2000 urteak gauza onak ekar ditzala"*

Ane 1992ko urtarrilaren 15ean jaio zen. Mariaren Lagundian ari da ikasten, 2. mailan, eta Mariasun du irakasle.

Gauza asko ikasten dira eskolan: batuketak, kenketak, ingurunea, ingelesa, erlijioa, musika..., baina azterketarik gabe. Gimnasia ere egiten da, eta etxeko lanak ere bidaltzen dituzte.

Eskolatik aparte, kirol askotako klaseetara joaten da, eta jolasteko astia ere badauka: ezkutaketan, bonban, arratoia eta katuan, stopean, soka-saltoan, goman... Etxean, telebista ikusten du, asko gainera, marrazki bizidunak batez ere, eta bere adinekoentzako pelikulak. Irratia ez du entzuten, eta egunkaririk ez du irakurtzen, baina BERRIGARA bai. Bergaran zer gertatzen den badaki, baina hemendik kanporakoari buruz oso gutxi. Hori bai, inoiz entzun du Eusko Jaurlaritza, ETA, Jose Maria Aznar, Clinton, HIES eta horrelakoei buruz hitz egiten.

Handia denean zaldi gainean ibiltzen diren horietako bat izan nahi du, eta 2000 urteak gauza onak ekar ditzala eskatzen du.

Lurrindegia
Edertze aretoa
Ibargarai 10. Tf. 943 76 00 85
alga

Gabon zoriontsuak opa dizkizugu.

Urteko albisteak

# Kirolak

**Urtarrilak 2**
BKEko Iraundi eskubaloi talde nagusia txapeldun geratu zen Aloña Mendi eta Arrasateren artean jokatutako Gabonetako txapelketan.

**Urtarrilak 5**
Arrakastatsua gertatu zen Zaleak taldeak herriko kaleetan zehar antolatutako Errege bezperako herri krosa. Senior mailan, Manu Hurtadok irabazi zuen. Beteranoetan, berriz, Aitor Erañak, eta emakumezkoetan Mari Karmen Gartziak. Gazte mailetan honako hauek izan ziren txapeldunak: Antxon Hernandez, Neray Varela, Juan Mari Mendoza, Ion Beistegi eta Iñigo Larrañaga.

**Urtarrilak 17**
San Antoneko herri krosa jokatu zen. Bertaratutako 28 antxintxikalariek 7 kilometroko ibilbidea egin zuten. Maila ezberdinetan, honakook izan ziren irabazleak: Aitor Eraña, Jose Luis Fernandez, Ander Iturriagagoitia eta Gema Orobengoa.

**Urtarrilak 30**
Aranzeta eta Gutierrez BKEko pilotari bergararrek Gipuzkoako afizionatuen txapelketa irabazi zuten Zumarragan, Martin eta Maiztegi oñatiarrei 22-12 nagusitu ondoren.

**Urtarrilak 30**
Debagoieneko Udal Kirol Zerbitzuek antolatutako Kirol Challangean 1998an nagusitu zirenei sariak banatu zizkieten Osintxun. Bergararren artean honakook jaso zituzten: frontenisean, Patxi Vallejok eta Xabi Albisuak; palan, Jon Alberdik eta Iñigo Agirrebeñak, eta Mikel Etxanizek eta Ina Iruretak.



## *ARKU TIRAKETA TXAPELKETA BERGARAN*

**Gipuzkoako Arku Tiraketa txapelketa** jokatu zen urtarrilaren 31n Labegaraieta Kiroldegian. Herrialde guztietatik etorritako 32 tiratzaile aritu ziren lehian, horietatik **Fernando Markina** eta **Jose Luis Arietaleanizbeaskoa** bergararrak. Zortzigarren eta bederatzigarren postuan amaitu zuten. Fernando Markinak brontzezko domina lortu zuen otsailaren 7an Euskadiko Txapelketan Gasteizen. Horretaz gain, nagusien mailan lehen saria eskuratu zuen.



***Kirol sariak 99*** Herriko kirolarien lana aitortu nahian BERRIGARAK eta Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako sariketan, hainbat kiroletan dabiltzan 14 bergarar, **Bergara Kirol Elkarteko futbol talde nagusia** eta **Reyes Azkoitia** pilotari entrenatzailea omendu dira aurten. Sari banaketa ekitaldia maiatzaren 20an egin zen Kultur Etxean.



*"Kantxa ondo babesten dudala esango nuke. Huts gutxi egiten ditut, eta sakeak ondo ateratzen ditut. Hala ere, indar apur bat falta zait"*

**Igor Gutierrez, pilotaria**

Otsailak 12



*"Gimnasia erritmikoan arintasuna behar da, eta, horretarako, janaria zaindu behar dugu, esaterako, ogia jateari laga behar zaio"*

**Ane Miren Fernandez, gimnasta**

Apirilak 16







## Bergara hirugarren mailara

**Oñatiko Azkoagain** futbol zelaian Aloña Mendiri 1 eta 2 nagusitu ondoren, **Hirugarren mailarako txartela** eskuratu zuen BKEk maiatzaren 22an, Pazkuetako zapatuan. 1984-85 denboralditik ez zegoen Bergara Hirugarren mailan. Hurrengo zapatuan, denboraldiko azken partiduaren atarian, Preferenteko txapeldunen kopa eman zion **Juan Luis Larrea** Gipuzkoako Federazioko presidenteak **Markel Egaña** Bergarako kapitainari. Urolaren aurkako partidua bina amaitu zen, eta Agorrosingo harmailak lepo bete ziren **Enrique Nieto**ren mutilek urtean zehar egindako lana aitortzeko. Ondoren, jokalariek omenaldia jaso zuten Udaletxean. **Victoriano Gallastegi** alkateak plaka oroigarri bat eman zien.



**Martxoak 14**
Jose Mari Zezeagak bere bosgarren binakako finala jokatu zuen, oraingoan Mikel Goñirekin batera, Logroñoko Adarragan, martxoaren 14an. Elkoro laguna izan zuen etsai, eta elgetarra nagusitu zen azkenean, Olaizolarekin bikote eginez.

**Martxoak 28**
Uzarragako txirrindulari igoeran Ander Agirre, iazko irabazleak, seigarren amaitu zuen. Ibai Rodriguez oreretatarra izan zen txapeldun. Martxo hasieran, bestalde, Eibarreko Udaberri Sarian hirugarren amaitu zuen Ander Agirrek.

**Apirilak 4**
Realak Aste Santuan antolatzen duen jubenil mailako futbol txapelketako partidu bat jokatu zen Bergaran: Bartzelona-Athletic. Zuri-gorriak nagusitu ziren 3 eta 2. Txapelketako finala Realak eta bizkaitarrek jokatu zuten biharamunean Anoetan. Lezamara joan zen saria. Jon Andueza bergararra Realarekin aritu zen.

**Apirilak 11**
Txakur Leren Lasterketaren seigarren edizioa jokatu zen Gorlan, eta, beste behin, Goyo del Real madrildarra nagusitu zen. Axen Garitano, bergarar bakarra, bosgarren sailkatu zen.

**Apirilak 18**
Aitor Zabaletak Arrateko XXXI. Igoera irabazi zuen (2:33:35), Andres Vilariñoren aurretik sailkatuta. Uztail hasieran, Udanakoa.

## protagonistak



***Rachael Olabarria***
Apirilean Cadizen jokatu zen Espainiako Areto Futbol Txapelketan aritu zen Euskadiko selekzioarekin. Martxoan, Zaragozan eta Lloret de Maren ere aritu zen.



***Aitor Delarriberette***
Hainbat sari jaso ditu snow board kirolean. Martxoan, besteak beste, unibertsitateen artekoa irabazi zuen gigantean, eta bigarren izan zen slalomean, Katalunian.




## *AITOR ZABALETA JAUN ETA JABE*

**Gorlako auto igoeraren IX. Edizioa** jokatu zen **ekainaren 5ean**, eta **Aitor Zabaleta** bergararra erraz nagusitu zen. **Javier Bretaña** eta **German Hernandez** bergarararrak 9. eta 14. postuan sailkatu ziren. Bestalde, esan Aitor Zabaleta **Euskadiko txapelduna** dugula aurten korritu dituen bederatzi probetatik zazpitan izan baita garaile, azkena azaroaren 21ean, Jaizkibelen.

## *Aspacekoak bikain*

**Amaia Nuñez** markinarrak, **Agustin Toledo** bergararrak, **Nerea Egaña** ermuarrak eta **Arkaitz Zabala** eibartarrak, Bergarako Aspace taldekoak guztiak, lan bikaina egin zuten Cadizeko San Fernando hirian ekainaren amaieran jokatutakon gutxituen Espainiako Txapelketan. Urrezko, zilarrezko eta brontzezko dominak lortu zituzten. Agustin Toledo seigarren sailkatu zen pisu jaurtiketan.





Barrenkalea 35
Tf. 943 76 24 89

Iturkintza • Berogintza • Bainuak

Laskurain

*URTE BERRI ON!!*



*"Kirolaren mundua euskalduntze aldera, ondo legoke kirol aldizkari espezifiko bat argitaratzea eta ikastaro bereziak antolatzea"*
**Julen Masach, Realeko prestatzaile fisikoa.** Irailak 17



*"Gazte mailan Euskal Herriko hiru txapela lortu nituen. Gero lagatzea erabaki nuen, baina harripean sufritzen ikasi nuen"*
**Iñaki Eguren, harrijasotzaile izandakoa.** Irailak 24




**Bergara Hiria.** Besteak beste, Bergara Hiria txapelketa irabazi dute aurten Muguruzak eta Muruk.

## PILOTARI TXAPELDUNAK

**Ander Muguruza** bergararra promesa mailan eta **Iker Muruamendiaraz** afizionatuetan txapeldun geratu ziren Bergara Hiria Sarian, uztailaren 2an. Muguruzak eta Muruamendiarazek beste hainbat sari irabazi dituzte urtean zehar: lehenengoak Berrizeko lau eta erdiko txapelketa irabazi zuen urriaren 1ean, eta bigarrenak Oñatiko San Miguel txapelketa eskuratu zuen urriaren 2an. Muruamendiarazek DV-ETBko finala jokatuko du Arrasateko Uarkapen abenduaren 26an. Iker notizia izan da urteko azken egunetan, izan ere datorren urtean profesionaletan arituko dela jakin baita. Ondo merezitako saria duda barik.

## IZENIK GABEKO DORREAN



**Jon Lazkano** eskalatzaile bergararrak, **Iñurrategi anaien eta Tamayoren laguntzaz**, Izenik Gabeko Dorrea (Pakistan, 6.243 metro) igotzea lortu zuen ekainaren 28an. Aurretik, Greziako **Olinpo** eta Irango **Alan Khu, Demavend eta Trono de Salomon** gailurrak egin zituzten. Espedizioaren nahia, Pakistanen, **Nanga Parbat** (8.125 metro) ere igotzea zen, baina 7.000 metrotan zeudela istripu larria jasan zuen kolonbiar bat erreskatatu behar izan zuten, eta hasierako planak bertan behera geratu ziren.





## Goitibeherak

**San Migel** jaien atarian, aspaldiko partez, goitibehera lasteketa jokatu zen irailaren 18an **Asentziotik Angiozarrera.** Hamahiru bikote izan ziren lehian, tartean, **Gutierrez eta Olabarria** bergararrak. Larrañaga-Larrañaga aramaioarrek eroan zuten txapela. Bergararrak bederatzigarren sailkatu ziren.


# Ipiñarri zerrategia S.L.

MUEBLEAK. AROZGINTZA. ERAIKUNTZA. ENBALAJEA

IBARRA Z/G. 20570 BERGARA. TELEFONOA: 943 76 15 93.

**Maiatzak 1**
Bergara Hiria II. Karate Saria jokatu zen Bergaran. Infantil eta jubenil mailako 110 shotokan karateka bildu ziren, tartean, 18 bergarar. Nabarmentzekoa da Oier Tola bergararra gerriko berdetik beltzera doan atalean hirugarren sailkatu zela.

**Maiatzak 21**
Urtean zehar Eskola Kirolean jo eta ke aritu ondoren, Pazkuetako lehen egunean jokatu ziren finalak. Ondoren, Bitorianatxoren jaitsiera eta gero, sariak banatu ziren. Herriko eskolateko neska mutikoak poz-pozik, lortutako sariarengatik eta, nola ez, jaiengatik ere bai.

**Maiatzak 30**
Errotagainek eta Bar Canalejasek irabazi zituzten futbitoko liga eta kopa. Lehenengoak, Bildurbarek Opel/Lam taldeari 5 eta 3 irabazi eta gero, eta besteek Pagomendiren aurka 6 eta 2 nagusitu ostean. Txapeldunen arteko superkopako partidua Bar Canalejasek irabazi zuen 5 eta 2.

**Uztailak 10**
Herrien arteko txapelketan hirugarren postua eskuratu zuen Bergarak. Oñatin jokatu ziren partiduak eta 2-1 nagusitu zitzaien aretxabaletarrei.

**Uztailak 16**
Ipintzako futbol txapelketako nesken finalak jokatu ziren. Baleike eta Zutaz Pentsatzen taldeak nagusitu ziren gazte eta nagusien mailetan.

## protagonistak



***Jesus Mari Biain***
42 urteko urretxuarra BKEko talde nagusiko entrenatzaile aukeratu zuen Zuzendaritza batzordeak ekainean. Urteetan Urola entrenatu du, hau ere Hirugarren mailan zebilenean.



***Xabier Lijo***
Anetoko X-trom maratoian hartu zuen parte, 700 lagunen artean, ekainaren 20an. Sei ordu behar izan zituen 42 kilometroak egiteko. 300. sailkatu zen. Anetok 3.404 metro ditu.



**Frontoia leporaino.** Arbiaska frontoi berritua toperaino bete zen Nikolas omentzeko.

## NIKOLAS AGIRREZABALI OMENALDIA

Nikolas Agirrezabal zenaren aldeko **jaialdi bikaina egin zen irailaren 26an Angiozarko Arbiaska frontoi berrituan**. Besteak beste, Euskal Herriko herri kirolaririk punta-puntakoenek hartu zuten parte. Goizean, frontoiaren inaugurazio ekitaldian afizionatu zein profesional mailako pilota partiduak jokatu ziren.




## Kopako txapeldunak

**Bergarako Lagunak areto futboleko jubenil mailako taldeak** Gipuzkoako kopa eskuratu zuen ekainaren 11n, Labegaraieta kiroldegian, Aloña Mendiren aurka finalean 8 eta 2 nagusitu ondoren. Aitor Zabaletaren mutilek lan bikaina egin zuten kopan.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zorionak eta urte berri on!!

Fraiskozuri 5 Tf. 943 76 13 41 - 76 18 42
Matxiategi 5 Tf. 943 76 57 41 - 76 57 42



*"Bigarren B maila kategoriarik zailena da. Ligan ondo aritu arren, igoerako play-offa jokatu behar da eta loteria izaten da askotan"*

**Asier Garitano, Burgos futbol taldeko jokalaria.** *Urriak 15*



*"Harri kubikoekin errektangularrekin baino hobeto moldatzen naiz. Datorren urtean, harri handiko txapelketan ariko naiz"*

**Jose Luis Lete, harrijasotzailea**
Urriak 29



## RAULEN ALDE

**500 bat lagun bildu ziren irailaren 25ean Udal Pilotalekuan** Raul Luqueren alde sosak batzeko antolatutako aerobitonean. Antolatzaileen esanetan, milioi erdi pezeta inguru batu ziren. Giro bikainean aritu ziren aerobitoia egiten bi ordu luzez.






## Gasteiz Cup-en garaile

**Joma Arkupe** alebin mailako futbol taldeak Gasteiz Cup nazioarte mailako txapelketa irabazi zuen uztailean. Arrasatekoa izan arren, **Bergarako sei gaztetxok** osatzen zuten taldea.

COMERCIAL BRUNET

Ozaeta 11, BERGARA
Tf. 943 76 31 52

Urte berri on eta jai zoriontsuak!

Husqvarna



**Urriak 16**
Paulo Pera eta Mikel Arakistain shotokan karateka bergarrrek zilarrezko dominak lortu zituzten euren mailetan Basaurin jokatutako Euskadiko txapelketan. Mikelek (17 urte) kadete mailan eta Paulok (23 urte) seniorretan.

**Uztailak 23**
Ipintzako futbol txapelketako mutilen finala jokatu zuten Gore eta Bildurbarek Opel/Lam taldeek. Lehenengoak nagusitu ziren 3 eta 1.

**Abuztuak 29**
Bergarako futbol talde nagusiak debuta egin zuen hirugarren mailan, Zornotzan. Markagailuan aurreratu ondoren, bana amaitu zuten partidua.

**Irailak 18**
90 bat lagunek hartu zuten parte San Martin herri krosean. Sari nagusiak Kantabriako Pielagos taldeko lasterkariek eroan zituzten. Bergararren artean, Aitor Maiztegi, Asier Crespo, Juan Mari Mendoza eta Ion Beistegi nabarmendu ziren.

**Urriak 23**
Real Sociedad B, Hirugarren mailako liderra, Agorrosinen lehen aldiz izan genuen bisitari. Txuri-urdinak 2 eta 1 nagusitu zitzaizkien mahoneroei, partidua amaitzear zegoela.

**Azaroak 14**
Xabier Albisuak eta Patxi Vallejosek irabazi zuten Angiozarko Arbiaska frontoian jokatutako frontenis txapelketako finala.

## protagonistak



***Roman Laskurain***
Pol-Poleko mendizale bergararrak "Montes de Euskalerria" izenburupean argitatutako hiru liburuetan agertzen diren 240 euskal mendiak egin ditu. Azkena, uztailaren 3an, Hiru Erregeen Mahaia.



***Joseba Lopez***
24 urteko bergararra Euskadiko moto kros txapelduna dugu 250 kategorian. Urrian lortu zuen txapela janztea. Joseba Lopez gazte mailetan ere nabarmendu izan da.



## *BEHOBIA TXIKIA JENDETSUA*

**Behobia-Donostia prestatze aldera, 80 bat lagun elkartu ziren Agorrosinen, urriaren 23an,** Behobia Txikiaren 15 kilometroak egiteko. Esan dezagun, azaroaren 14an jokatu zen Behobia-Donostia lasterketan herriko 109 kirolari aritu zirela, eta **Ion Aranzabal** izan zela azkarrena (1:08:18). Lehen emakumea **Saioa Berraondo** izan genuen (1:39:02). Azaroaren azken domekan jokatutako Donostiako maratoia, azkenik, 10 bergararrek amaitu zuten, eta **Roberto Zurro** izan zen onena (2:44:33). **Bixente Pagaldaik** maratoiko 22 edizioak korritu ditu aurtengoarekin.



## *Athleeeetic!!*

**Abenduaren 14an** aurkeztu zen Tartufo jatetxean Bergarako Athletic Club lagunartea. **Koldo Agirre eta Jose Mari Argoitia**, garai batean jokalari zuri-gorriak izandakoak eta gaur egun talde gazteen entrenatzaileak direnak, Bergaran izan ziren. Bergarako Athletic Club lagunarteak **91 bazkide** ditu. Ohorezko peñakidea **Imanol Etxeberria** da.

**MEMESA**
INDUSTRI HORNIDURAK

**FEMUR**
Kale Zaharra 62. 20560 OÑATI
**Tf. 943 71 80 80. Faxa: 943 71 80 45**

Nafarroa etorbidea 9. 20500 ARRASATE
**Tf. 943 71 24 25. Faxa: 943 71 22 98**

Santa Krutz 25. 20550 ARETXABALETA
**Tf. 943 71 24 11. Faxa: 943 71 21 19**

# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra

**BAINUGELARAKO**
osagarriak, kortinak, alfonbrak, eta abar

**SUKALDERAKO**
diseinu eroso eta berrienak

**ZERAMIKA**
gustu eta leku guztietarako

**GREMIOEN koordinazioa**





*Zorionak eta urte oparoa izan dezazuela denok!*

ADI!
CAPRI, LINEA FS eta COMBO sukalde modeloek %25eko beherapena dute!

AENOR
Produktu zertifikatua

6 URTEKO GARANTIA

FAGOR
Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak
San Lorentzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefonoa: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.



BIXENTE PAGALDAI

# Atleta popularren ispilu

Angiozartarra ■ 51 urte ■ Donostiako maratoiaren edizio guztiak bukatu ditu ■ 1985. urteko edizioan bere markarik onena egin zuen, 2 ordu, 29 minutu eta 23 segundurekin ■ Bergarako Altos Hornosen lan egiten du

Pertsonalki ez dut Bixente Pagaldai gehiegi ezagutzen, karrera bat baino gehiagotan topo egin dugun arren. Hala ere, Donostiako maratoia urtero korritzean erakutsi duen irmotasuna txapela kentzeko modukoa da. Aurtengoa, XXII. edizioa izan zen, eta guztietan helmugara heldu izanak izugarrizko meritua dauka. Ez dakit beste atletaren bat egongo den Bixentek Donostian lortutakoa berdindu dezakeenik. Gure artean diren atleta popular askoren adibide paregabea da, 51 urterekin korritzeko duen ilusioa mantentzea ez baita gutxi. Eta horrekin ez dut esan nahi "zaharra" denik, baizik eta maratoia ez dela txantxetako gauza. Nik askotan esaten dut 42 kilometro eta 195 metroak betetzeko, burua hankak bezain garrantzitsua dela. Fisikoki sasoi onean eta psikologikoki ere ondo gertatuta egotea beharrezkoa da horren lasterketa luzeari aurre egiteko. Gainera, gutxienez lau hilabetez gogor entrenatu beharra dago egun bakar batean norberaren onena emateko. Ez da gozatzen den proba horietako bat, sufritu beharra dago, eta Bixentek maratoia maite duela erakutsi du. Auskalo honezkero zenbat kilometro izango duen hanketan...

Atleta popular askoren adibide paregabea da, 51 urterekin duen ilusioa mantentzea ez baita gutxi

Urte asko izango dira Bixente eta biok lehen aldiz elkarrekin korritu genuenetik. Oker ez banago, duela hamabost bat urte-edo, nahikoa sufritu behar izan nuen Bergara (Gabon zaharretan, beharbada) eta Urrestillako lasterketetan bere aurretik helmugan sartzeko. Azpeitiko zezen plazan garai batean egiten zituen apostuen berri ere badaukat, eta badakit oraindik ere, Donostiako maratoia heltzen den bakoitzean, gustatzen zaiola lagunekin apostu bat edo beste egitea. Motibazioa lortzeko ez da gauza txarra.

Gure maratoilarien kalitateak gora egin du azken urteotan, eta hori, neurri handi batean, Bixenteren moduko atleta popularrei esker izan da. Guztion artean, Donostiako maratoia ezaguna izatea lortu dugu, gaur egun Europako maratoirik onenetakoa izatera iritsiz.

Zorionak Bixente eta eutsi sasoiari!! <

**DIEGO GARCIA**



(Azkoitia, 1961) Europako maratoi azpitxapelduna Helsinki'94n. Bartzelona'92 eta Atlanta'96 Olinpiadetan hartu du parte.




**BILBO garraioak**

Bergara-Bilbo
**egunero zerbitzua**

**Partikularrendako**
eta
**industriendako**

Leizariako
San Lorentzo 19, 3C.
Telefonoa:
943 76 35 74.
Mugikorra:
609 479 443

# BERGARA *Kafea-Pentsioa*

EGUNERO
goizeko 7etatik zabalik.
**Gosariak, pintxoak, bokatak eta meriendak.**
**Logelak.**







*Ondo pasau Gabonetan!*

Bidekurutzeta 34. Tf. 943 76 47 23



50 urte baino gehiagoko esperientzia eta profesionaltasuna egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural, propano eta butano eta berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak.
Bainuko altzariak.

Gabon zoriontsuak izan ditzazuela!

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

**Larrañaga Eguren, B. M.**

Juan XXIII
Tf. eta Faxa 943 76 11 88
20.570 BERGARA

**ELKAR ELEKTRAGINTZA**

ZURE ZERBITZURA!!

**Mota guztietako instalazioak**



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA

*EGUZKITZA jatetxea*

Zorionak denoi!







**Plater konbinatuak**
**Kazuelatxoak**
**Eguneko menua 850 PTA eguerdietan eta gauetan**
**Karta, aurrez eskatuta**

Aranerreka 30. Bergara.
Telefonoa: 943 76 14 25.

# kontuola...



1999 honek albiste eta kontu bat baiño gehixago emon dittu. Eta urteko azkenengo ale honetan urtiak emon dabenaren errepasua egingo dogu. 21 Kontuola izan dira milurteko azkenenguak emon dittuanak, urtekarixa barne. Hurrengo orrixetan jaso dogu Antzuolan izandakuaren berri, udal hauteskundeak ahaztu barik. Mireia Unamuno izendatu zuten alkate. Historian lehen aldiz emakume batek lortu du kargu hau herrian.
**Urte berri zoriontsua!**

# URTEKARIA 99

HIRU
AROZTEGIA
Antigua auzoa 8. 20577 ANTZUOLA Tf.: 943 76 63 59
ATEAK
•
LEHIOAK
•
ZORUAK
•
HORMA ARMAIRUAK
Ondo pasau Gabonak!

*Zorionak eta urte berri on herritar guztioi!*

**UDALA**
943 76 62 46
943 76 62 48
Faxa: 943 78 71 00
**LIBURUTEGIA**
943 76 60 65
**EPAITEGIA**
943 76 65 68

Antzuolako udala



MATZ-ERREKA

Berotan estanpaturiko torlojugintza berezia
•
Plastiko eraldakuntza injekzio bidez

ERREKA®

Ate eta pertsianak zabaltzeko motorreduktoreen fabrikazioa

Ibarreta z/g 20577
Antzuola
Tf. 943 78 60 09
Faxa 943 78 70 34
INTERNET:
http://matz-erreka.mcc.es

**Zorionak Gabonetan!**

# Lehen emakume alkatea

## Mireia Unamunok uztailaren 3an hartu zuen kargua



**Historian lehen aldiz emakume bat dago Antzuolako alkatetzan. Mireia Unamunok 34 urte ditu eta bera da joan den ekainetik herriko alkatea. Debagoieneko emakumezko alkate bakarra.**

**Egin behar asko aurkitu zenituen kargua hartzean?**

Bidea nahiko markaturik zegoen. Aurrekontua onartuta zegoen eta gauza asko martxan zeuden. Orain ari gara aurrekontu berria prestatzen, eta ezberdintasunak hortxe azaldu beharko dira.

**Emakume izateak eraginik badauka karguan?**

Sentsibilitate ezberdinak ditugu gizonekiko eta gauza batzuetan zuhurragoak gara. Idazkaria emakumezkoa izateak ere, agian, izango du zerikusik. Askoz ere gogorragoak gara prozedimentuak jarraitzerakoan eta epeak betetzerakoan.

**Mankomunitatean ere emakume alkate bakarra zara.**

Bai, baina beste bi emakumezko ere badira. Gehiago izatea nahiko genuke, baina.

**Historia egiten ari zarela esan daiteke?**

Nik ez diot garrantzirik ematen horri. Anekdota bat baino ez da. Tokatu egin zait eta hartu egin dut, gainera normaltasun guztiarekin. Berdintasuna normalitatea izan behar da. Gehiago izan beharko ginateke Euskal Herri zabalean, ez gara hainbeste eta.

**Zein da zure helburua legegintzaldi honetan?**

Aurrekontuaren aldaketa helburuekin lotuta dator. Epe motzera igerilekuaren bideragarritasunaren azterketa bat eskatu dugu. Gizarte etxearen proiektuan aldaketak egitea aztertzen ari gara, nahiz eta lanak adjudikaturik zeuden. Bestalde, auzoei begira, auzo zaharretan berreskuratze lanak egitea aztertzen ari gara, nahiko lagata daudela salatu izan dugu eta. Horrekin lotuta, esaterako, igogailuak jartzeko aukerak aztertzen ari gara. Horrez gain, industrialdea, etxebizitzak eta bestelako gai potolo asko ditugu mahai gainean.

# URTEKO DATUAK

### HILDAKOAK

**URTARRILA**
19 Emiliano Horrillo Caballero. 76 urte
24 Vicente Igarza Iñarra. 88 urte
**OTSAILA**
4 Patricio Rodriguez Acosta. 61 urte
**MARTXOA**
21 Justo Lizarralde Eskibel. 82 urte
**APIRILA**
14 Pedro Alonso Gonzalez. 77 urte
25 Alejandro Oria Bizkalatza. 88 urte
**MAIATZA**
7 Marcelino Garmendia Astarloa. 86 urte
**EKAINA**
1 Francisca Zubillaga Leunda. 84 urte
2 Isabel Fernandez Audicana. 85 urte
24 Desideria Rodriguez Cerrato. 76 urte
26 Martin Zabaleta Larrea. 70 urte
**ABUZTUA**
4 Paulino Lete Urkiola. 86 urte
6. Patricia Lizarralde Estenaga. 90 urte
12 Josefa Lizarralde Unzueta. 85 urte
**IRAILA**
11 Jose Jabier Amasorrain Usabiaga. 58 urte
**AZAROA**
12 Maria Guridi Iturbe. 66 urte

### JAIOTAKOAK

**URTARRILA**
9 Ainize Cid Cot
**MARTXOA**
11 Eneko Martin Rodriguez
13 Mairi Olabarria Etxezarreta
**APIRILA**
25 Alazne Rodriguez Garitano
**MAIATZA**
2 Unai Larrera Castro
10 Yerai Gomez Sanchez
11 Aritz Etxabe Garitano
19 Manex Balerdi Iparragirre
29 Aiert Kerexeta Arratibel
30 Zumaia Elkoro Igarza
**EKAINA**
30 Beñat Kortabarria Berasategi
**UZTAILA**
2 Kepa Altube Miner
**ABUZTUA**
20 Amalur Muguruza Pildain
**URRIA**
11 Unai Yera Calvo

### KANPORA JOANDAKOAK

Francisco Sanchez Garcia
Joaquin Nuñez Romero
Amaia Telleria Flores
Aitor Gabilondo Arregi
Magdalena Muñoz Cuesta
Manuel Garcia Fernandez
Maria Pilar Palacin Sardino
Hilario Merino Fernandez
Jesus Mari Iglesias Fernandez
Luis Fernando Mancisidor Basterra
Jesus Mª Melchor Legorburu Zubillaga
Mari Karmen Olabarria Laskurain
Jose Narbona Espinosa
Jeronimo Ortiz Martin
Higinia Ferreira Tena
Antonio Menor Cid
Elena Mellado Aragon
Luis Miguel Herranz Fuentenebro
Claudio Cabrera Acosta
Eva Alzas Guillen
Mari Carmen Gimber Tabares
Violeta Da Rosa Pascual
Julia del Rio Gomez
Ana Maite Gezalaga Badiola
Juan Maria Etxezarreta Agirre

### KANPOTIK ETORRITAKOAK

Juan Cruz Azkarate Agirrezabal
Marina Jauregi Mendizabal
Victor Manuel Edroso Fernandez
Maria Fatima Pereira
Patricia Sandra Elias Fernandez
Francisco Javier Pineda Gomez
Aitziber Lopez de Aretxaga Garmendia
Emiliano Sanchez Carmona
Imanol Altube Bengoa
Sarda Lorda Aguaron
Aina Altube Lorda
Goiz Eder Ormazabal Bideluze
Igone Larrañaga Argarate
Natividad Narbaiza Veiga
Ana Belen Ruiz Cuesta
Manuel Jose Tena Pescador
Maria Arantzazu Sanchez Gilarte
Alberto Garayoa Lebrero
Rafael Deogracias Caceres
Maria Isabel Telleria Galean
Oihana Zangitu Gil
Emanuela Tatiana Ghevio
Gorka Manuel Fernandez Rodriguez
Iker Murua Salceda

KONTUOLA **Idolaz elkartea, ANTZUOLA. Kazetaria**: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua**: Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak**: Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

DESKARGA
AUTOAK
Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tf. 943 76 62 75

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

# Karmen Irizar etxera itzuli zen

**Hamar hilabete** kartzelan pasa ondoren, urtarrilaren 15ean baldintzapeko askatasuna eman zioten Karmen Irizarri. Bi milioiko fidantza ordaindu behar izan zuen gainera.

Urtarrilaren 17an Antzuolako Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta ongi etorria egin zioten Jubilatuetan. Kontuolak elkarrizketa egin zion Karmeni urtarrilaren 29an:

"Eguakitzian 16:00etan esan jostanen agente judizialana jun bihar nebala. Lagunei esan najotxanen "epaiketarako eguna edo". Huertasekin juntau eta esan jostanan "Karmen libre gaude". Ez giñuan sinisten... Gogorra don urtetzia, norberan kidiak han lagata. Oso maittasun sakona don... Ezin don ulertu barruan egon barik".



*Karmenen ongi etorrian opariak ez ziren falta izan.*

## Horrela gelditu zen Danok Bat

**Kontuolak**, urtarrilaren 29ko alean, Danok Bat elkartearen eraikin berria nola geldituko zen aurkeztu zizuen. Jaime Telleriak egindako proiektuaren maketa. Kalegoiko bosgarren zenbakian egongo zela aurreratu genizuen. Izan ere, abuztuan erosi zuten bazkideek etxe hori. Hilero 4.000 pta ordaindu du bazkide bakoitzak ordutik.



### Esandakoak



*"Garaipen txikixak emaitza handixak emoten dittue, epe motzerako planteatzen dienian behintzat. Enaiz ezekin damutzen. Neretako aberastasun handixa izan da. Beti esaten dot seminarixuan asko ikisi nebala, baiña herrixakin askoz gehixago".*

■ **Juan Antonio Lizarralde**
misiolaria

Arin
JATETXEA
Euskal sukaldaritza
Eguneko menua
Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

GOROSTI
Taberna
☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA
Gabonetan... Ondo pasau!




*Elay taldeak 1.000 milioi PTA ibertituko ditu Celayan.*



*Hamasei mexikar etorri dira herrira lanera.*

# Elayk lantegi berria Mexikon

**Mexikon** lantegi berria irekitzea erabaki zuen Elay taldeak. Celaya estatua hautatu zuten horretarako.

Proiektuaren helburua bikoitza zen: batetik, merkatua zabaltzea eta bestetik, EEBBak eta Kanadako merkatutik gertuago egotea. Proiektua 1.000 milioi pezetakoa zela jakin genuen.

Santi Zabaletak, orduan adierazi zigunez "apiriletik eta Gabonak bitartean mexikarrak etorriko dira makinen funtzionamendua ezagutzeko".

Harek esan bezala, hamasei mexikar etorri ziren herrira. Taldeka batzuk eta banaka beste batzuk.

## Babestutako etxebizitzak

**Antzuolako** Udal Etxegintza elkartea eratu zen, Udalak bultzatutako etxebizitzen proiektuari ekiteko. Otsailaren 13an egin zen bilera etxebizitzen gainean. Hantxe banatu ziren egiten ari diren etxebizitzak.




## Esandakoak



*"Ameriketan ezagututako euskaldunak asko akordatzen dira Euskal Herriaz. Euretako asko udan etorri egitten dira. Ohitturei behintzet eusten jaue: dantzarixak, pelotarixak... Itxuraz badie diferentiak: haundixak dira".*

■ **Unai Idiakez (EEBBetara bidaia)**
pilotaria

HARIZKI

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zorionak antzuolarrok!

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

LEKU-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

# Aurrekontua onartu zuen Udalak

**Martxoaren 30ean** Udal Batzarrean onartu zuten Zutik eta HBren kontrako botoekin, 1999rako aurrekontua. Guztira 480.572.131 pezetako aurrekontua onartu zen.

Honi, ordea, Antzuolako Udal Etxegintza proiektuaren 86.400.000 PTA gehitu behar zaizkio.

Hirigintza batzordea izan zen diru gehien hartu zuena, 164 milioi PTA pasatxo. Izan ere, batzorde honek lan ugari zuen aurreikusita, tartean Gizarte Etxea (160 milioi PTA) eta Olarango etxearen berrizte lanak (30 milioi PTA).




## Korrika Antzuolan



**Martxoaren 19an** iritsi zen Korrika Antzuolara, 23:40etan. 292.445 pta jaso ziren herrian "Bat eta bat hamaika, zu eta ni euskaraz" Korrikarako, kuestazioa, material salmenta eta kilometroen salmentarekin.

## Hasi eta bukatu



**Aitor Larreak** Arrasateko Born Jay afizionatuetako txirrindulari taldearekin fitxatu zuen denboraldi hasieran. Aurreko urtean bere kabuz ibili zen. Baina talde barik aritzea zaila zela eta, Arrasateko taldeari baietz esan zion. Denboraldia amaitu aurretik, laga egin zuen ordea. Born Jay ere desagertu egin da aurten.

## Jubilatuen etxea



Martxoaren 20an ireki zen berriz Jubilatuen etxea. Mari Angeles eta Eva dira arduradun berriak. Ia urtebete egon zen arduradun barik jubilatuen taberna. Ama eta alaba pozik zeuden zabaldu zutenean izandako arrakastarekin.

## Kalitateari saria

**Zabalo Iturgintzak** K-21 saria eskuratu zuen martxoaren hasieran. ADC (Asociación para el Desarrollo de la Calidad) enpresak eman zion saria Jose Angel Zabalok kudeatzen duen iturgintza enpresari. Orain dela urte batzuk Iturgik, Gipuzkoako iturginen elkarteak, arlo honetako enpresa txiki edo ertainen lana aintzat hartzeko izendapen bat egon beharko litzatekeela erabaki zuen. Asmo horrekin egin zen Iteristal kongresua. Hortxe sortu zen K-21 kalitatearen saria.



*OKINDEGIA*
*GOXOTEGIA*
*DAZTAKETA*
*KROISSANTEGIA*
ONDO PASAU GABONAK!
ALTZARTE
Kalebarren 18. 943 76 62 94

Igor eta Txomin

Margoak orokorrean
ANTZUOLA 609 157 131
BERGARA 609 150 164



Hiru urte eta erdiko kartzela zigorra bete zuen Patxi Olabarriak. Zigor osoa.

# Patxi aske laga zuten

**Apirilaren 10ean** aske laga zuten Patxi Olabarria. Hiru urte eta erdi eman zituen kartzelan. Antzuolara iritsi zen egun berean ongi etorria egin zioten Herriko plazan. Goizeko 11:30etan iritsi zen. Ekitaldi horrez gain, apirilaren 17an pilotalekuan bere omenezko bazkari jendetsua egin zen. Eta apirilaren 30eko Kontuolan "barruan" egondako denbora hori nola pasatu duen kontatu zigun.

## Esandakoak



**Gauzak asko aldatu dira, hiru urte eta erdi luze hauetan?**

*"Bai. Lizarra-Garaziko hitzarmena siñatu zanetik bai. Etorri naizenian eta Euskal Telebista ikusi dotenian...*
*Lehen edo orain ikusi, alde edarra dago! Dana dala, kartzelako egoeria ezta aldatu eta zeoze aldatu baldin bada beti okerrera izan da. Espainolak eztabe nahi gauzak aldatzia, hortaz, espainolekin jai dauku.*

■ **Patxi Olabarria** (preso ohia)

## Esandakoak



*"Sistema honekin kanpoan egiten diren ilarak saihestu nahi izan dira.*
*Horregatik gomendatzen da etorri aurretik txanda hartzea. Honela niregana datozenean zergatik datozen jakingo dut, neurri batean".*

■ **Luis Bastida** (sendagilea)



# Aberri Eguna arrakastatsua

**Lizarra-Garaziko** akordioaren sinatzaileek Aberri Eguna ospatzeko egindako deia jendetsua izan zen oso Antzuolan.


ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

MUJIKA
HARATEGIA

**Berezitasunak:**
Baserriko oilaskoak
Baserriko zekorrak
Kalebarren 1, **ANTZUOLA**
Tf. 943 76 64 34

# Udal hauteskudeetan EH nagusi



1.283 antzuolarrek izan zuten boto eskubidea udal hauteskundeetan.

**Ekainaren 13an** egin ziren udal hauteskundeak. Antzuolan Euskal Herritarrok izan zen garaile. Eta Mireia Unamuno zerrendaburua izendatu zuten alkate. Eusko Alderdi Jeltzalea bigarren indar politiko bezala gelditu zen (udal gobernuan hiru zinegotzirekin). Eusko Alkartasunak eta PSOEk, zinegotzi bana atera zuten.

**ZINEGOTZI GUTXIAGO**

Bi zinegotzi gutxiago ditu ordutik Antzuolako Udalak. Izan ere, biztanlegoak behera egin du eta horren arabera, bi zinegotzi gutxiago tokatzen zaizkio Antzuolari. 1995ean 1.642 biztanlek izan zuten boto eskubidea herrian. 1999ko hauteskunde egunean, ordea, zentsoan 1.283 herritar zeuden. Hamaika zinegotzitik bederatzira pasa zen Udal gobernua.

**BATZORDEBURUAK**

Hirigintza batzordeko buru Juan Jose Azkarate izendatu zuen EHk. Nekazaritza-ingurugiroan Jon Kortabarria eta Ogasuna-pertsonalean, berriz, Josune Irizar. Kultura-kirola-euskara-gazteria-hezkuntza batzordeburu Jose Luis Kortabarria izendatu zuten (EAJ) eta Ongizatea-osasuna batzordeburu EAko zerrendaburua, Jose Ignazio Madariaga.

## Cesareo Gabarain liburua

**Maiatzaren lehenean** aurkeztu zen herriko parrokian "Cesareo Gabarain" liburua. Bere hileta elizkizunaren 8. urteurrena zen eta Udalak egun horixe hautatu zuen "Antzuola herria ikerketa beka"ren bitartez egindako biografiaren aurkezpena egiteko. Beka honen bidez Antzuolako Udalak argitaratzen duen bigarren lana izan zen Cesareo Gabarain zenaren biografia. Ekitaldian Donostiako Mariaren Bihotzak, herriko abesbatzak eta Txistulari taldeak hartu zuten parte.



*Hanka Luzeen argazkia da liburuak jasotzen duen irudietako bat.*

## Gipuzkoako txapelduna



**Aintzane Narvaez** gimnastak Espainiako gimnasia erritmikoko txapelketan hartu zuen parte maiatzaren 29 eta 30ean. Hamahiru urterekin Gipuzkoako junior mailako txapelduna eta Euskal Herriko azpitxapelduna zen eta Espainiakora joateko hautatu zuten bera. Txapelketa Zaragozan jokatu zen eta Aintzanek sokarekin hartu zuen parte.
Sei urterekin hasi zen gimnasia erritmikoa egiten.


Urte berri on!



Gabilondo-Arregi
harategia
ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA
Kalebarren 14 ANTZUOLA Tf. 943 76 62 90

Ainhoa
drogeria
ONDO PASAU GABONETAN!
Kalebarren 13, ANTZUOLA

# Matz-Errekaren handitze lanak

**Irailean jaso** genuen Kontuolan Matz-Errekan egiten ari diren lanen berri. 1961ean eratu zen, eta mekanizatutako pieza txikiak egiten hasi ziren orduan. Gaur egun 220 lagun ari dira lanean. Produkzioa ere zabaldu egin dute urteekin. Hori dela eta, handitze lanetan ari dira Ibarretan dagoen kooperatiban. Lan hauekin 8.800 m2 izango ditu enpresak.

Mikel Agirrezabal zarauztarrak kudeatzen du Matz-Erreka, orain dela bederatzi urtetik. Berak azaldu zigunez "1993an krisiak eragin egin zuen, baina zorionez, indartuta atera ginen eta 1994tik eboluzioa goranzkoa izan da". Eta horren adibide da egun egiten ari diren pabilioi berria. 1.550 m2-ko pabilioia ari dira egiten. Eta eraikuntza berriarekin 8.800 m2 izatera iritsiko da Matz-Erreka.



*Pabilioi berriak 1.550 $m^2$ izango ditu.*

**PABILIOI BERRIA**

Ateentzako eta pertsianentzako itxitura automatikoak egiten hasi ziren Matz-Errekan 1983an. Ordutik produkzio honek goranzko joera izan du. Hori dela eta, aspaldian leku falta nabarmena zen.

Gauzak horrela eraikin berri bat egitea erabaki dute Matz-Errekako arduradunek. Azkenengo 5-6 urteetan hazkunde nabarmena izan du. Izan ere, irabazien 1.100 milioi PTA., gutxi gorabehera, negozio honetatik lortu ditu. Langileei dagokienez, orain dela 7 urte 15 lagun ari baziren, gaur egun 50 bat dira honetan lanean.

**LANEN AMAIERA**

Asmoen arabera, 2.000. urteko lehen hilabeteetarako lanak amaitua izatea espero dute. Matz-Erreka kooperatibako arduradunek.

Pabilioi berriak bi solairu izango ditu. Lehenengoan muntai arloa eta biltegia egongo dira. Bigarrenean, berriz, elektronika eta bulegoak jarriko dira.

## Gotzon Del Teso txapeldun



*"Kotxe honek Formula 1eko kotxien teknologixa maillan dare. Bai kotxiak baitta piezak pe denda espezializatuetan erosten die".*

**Urriaren erdialdean** Euskal Herriko auto telegidatuen txapeldun izendatu zuten Getxon. Lau urte daramatza hobbi honekin eta 1:10 neurriko auto telegidatuarekin lortu zuen Euskal Herriko txapela. Sei lasterketako txapelketa izan zen eta Gotzonek lehenengo eta bigarren tokiak lortu zituen horietako hiru probetan. Datorren urtean Bilbon jokatuko den Espainiako txapelketan arituko da.

## Guraso Eskola sortu nahian

**Guraso Elkartearen** eta Udalaren laguntzarekin Guraso Eskolaren proiektua abiatu zuen Pausokak. Urte osoko ikastaroan, urrian eta ekainera bitartean Iñaki Olaskoaga psikologoak zuzenduko du. Jesus Mari Matak azaldu zigunez "guraso izetiaren gorabeheren gaiñian gogoeta egitteko ikastaruak dira. Seme-alaben gaixetaz berba egitteko eta pentsatzeko lekua eta ordua izatia da helburua, beti taldian".

Gabon zoriontsuak izan!
Itzar
LIBURUDENDA ESTANKOA
Kalebarren 1, ANTZUOLA
Tf. 943 76 60 62

Ileapaindegia
Cot
Edertze aretoa
Aureli Cot Velasco
Errekalde 2
ANTZUOLA.
Tf. 943 78 71 37



Germaine de Capuccini
Retinol zimurren kontrako tratamendua.
4 saiotan aldea igarriko duzu.
GERMAINE DE CAPUCCINI
Zorionak eta urte berri on!

# Goizperrek 40 urte bete zituen

**Azaroaren 19an** inauguratu zuten ofizialki Olaker ikerketa eta garapen zentroa. Goizperrek bultzatutako ekimen honen irekiera ofiziala kooperatibaren 40. urteurrenarekin batera ospatu zuten. Horrez gain, Goizperko sortzaileei omenaldia egin zieten. Guztira 11 lagunek jaso zuten plaka oroigarria.

Iazko apirilean egindako batzar orokorrean onartu zuten Goizperko bazkideek biltegi bat (2.900 m² erabat informatizatua) eta ikerketa zentro bat eraikitzea. Ikerketa zentroak Goizperrentzat nagusiki egingo ditu ikerketa lanak, baina baita Oiartzungo Tajo, Legazpiko Urola eta Matz-Erreka enpresentzat ere. Izan ere, guztiek lantzen dute plastikoa.



*Hamaika laguni egin zieten omenaldia Goizperren 40. urteurrenean.*



*Bailaran lehenengo eta ondoren Gipuzkoako txapeldun izendatu zituzten.*

## Gipuzkoako sukaldari onenak

**Marcelina** Guridik eta Mari Kruz Lezetak erretiratuen Gipuzkoako sukaldaritza lehiaketa irabazi zuten. Debagoiena ordezkatu zuten Donostiako Sauce elkartean. Onenak izan ziren txapelketako zortzi bikoteren artean. Aurretik Aretxabaletan izan ziren eta hantxe bailarako txapelketa irabazi zuten. Gisaua gertatu behar izan zuen bikote honek kontatu zigunez, "gisauaren urtea" zelako. "Ontzirik ez eruateko esan zoskuen. Aretxabaletara jun giñanian dana eruan giñuan, baiña Donostiara gisauan saltsia egitteko erabilli giñuana bakarrik eruateko, eta han kazuelarik ez, gero. Baiña artian be geuria zeguan onena, itxuria danez".



## Enpresen sustapenerako zentroa

**Enpresa** ekimenetarako zentroa egitekotan dira Debagoieneko Mankomunitatearen laguntzarekin. Errekuperazio lanak Arrasateko Lanbide Eskolako ikasleek burutu behar dituzte. Aurrekontuari dagokionez, Antzuolako Udalak berrizte lanean erabiliko den materialaren %25 ordaindu beharko du.




Juan Cruz

Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Argazkiak

Marrokineria • Erlojuak • Bitxiak • Opariak

Herriko plaza Tf. 943 78 70 66 ANTZUOLA

SURPE taberna

TRAGO BAT hartzeko tokirik APROPOSENA

Herriko plaza 2, ANTZUOLA
943 76 64 97

Gabonetan ere Pollero, Eltzikorta eta EUSKAL PRESOEKIN BAT!

# Elay
Taldea

Tf. 943 766100
Faxa 943 766262
20577 ANTZUOLA

**Zorionak denoi!**

**elayINDUSTRIAL**
Ebaketa zehatza / Doitasunezko trokelaketa

**TROKelay**
Trokelgintza

**SEYTRA**
Galda bainitikoa / Plastikodun gainestalketa

**elay-DEUTSCHLAND**
Zerbitzu komertziala

***Balzers–Elay*** **Balinit**
Estaldura gogorretako zerbitzua

**GOIZPER**
**Transmisioak**

- Enbrageak, balaztak eta balazta-enbrage mekaniko, neumatiko, elktromagnetiko eta hidraulikoak.
- Espeka globika, lau eta zilindrikadun etenkako biragailuak. Espeka bereziak.

**MATABI**
**Ihinztagailuak**

- Nekazaritzan, lorategian, industrian eta etxean tratamendua egiteko ihinztagailu eta hautseztagailuak.

FABRIKAZIOA:

**GOIZPER** KOOP. ELK.

Antigua auzoa 4
20577 Antzuola (Gipuzkoa)

211 Posta kutxatila
20570 Bergara

Tf. 943 78 60 00
Faxak 943 76 60 08
943 78 70 95
E-mail: goizper@goizper.com
http://www.goizper.com

# Antzuolarren Independentzia Eguna

**Urtarrilaren 15ean** egingo da Antzuolarren Independentzia Eguna. Hirugarren urtez ospatuko da aldarrikapen jai hau, eta Antzuola Bergaratik banandu zeneko eguna gogora ekarri nahi du. "Antzuolarren Independetzia Eguna" batzordeko kideek azaldu digutenez "jaia gehiago herrikoitu nahian, egunean zehar antolatutako ekitaldirik gehienak herritarrek egindakoak izatea nahi dugu". Herriko pilotalekuan egiten den bazkari osterako "antzuolarrei ikuskizunak pentsatzen joateko eskatu nahi diegu".

Goiz partean txarangak animaturik, kalejira eta poteoa egongo dira, bazkalordura arte.



*Aurreko Antzuolarren Independentzia Egunean ere hainbat lagun animatu zen bazkalostea girotzeko.*

### HERRI KIROLAK

Zapatu horretan antzuolarrez gain, Aiherrakoak, Zarauzkoak eta Antiguo auzokoak gonbidatu dituzte. "Antiguo auzokoek Donostiarekiko independentzia nahi dute eta Antzuolara gonbidatu ditugu elkartasuna adierazteko". Hori dela eta, herri kirolak antolatu dituzte eta Aiherra, Zarautz, Antiguo eta Antzuolaren arteko probak jokatuko dituzte.

### AURREKONTUA

Jaiaren gastuei aurre egiteko, laguntza bonoak ateratzekotan dira batzordekoak. Aurreko urteetan tabernen eta Udalaren dirulaguntzak jaso dituzte, baina aditzera eman digutenez "iaz nahiko larri ibili ginen diruz, horregatik laguntza bonoak aterako ditugu. Bazkalostea girotzeko herritarren parte hartzea eskatu nahi dugu. Dena dela, "Lasarte" ez da faltako". "Lasarte" oriotarra iaz ere Antzuolan egon zen eta sekulako arrakasta izan zuten bere txiste eta bertsoek.

### BAZKARIA

Bazkaria, urtero legez, udal pilotalekuan izango da. Txartelak Gaztetxean eta Surpe, Larrea eta Mox tabernetan jarriko dira salgai, 2.000 PTAn.

## Muruamendiraz profesional



**Abenduaren 14an** Aspe enpresarekin hiru urterako kontratua sinatu zuen. Ikerrek 22 urte ditu eta Munduko txapelduna da. Berak adierazi zuenez "gazteagoak profesionaletara jauzia egiten ari zirela ikusteak izutu egiten ninduen, nik ez nuela lortuko pentsarazten zidan eta. Azkenean, ordea, iritsi da".

## Sarriegi Taldiaren zozketa




**Sarriegi Taldiak** urte berriko poltsikoko egutegiak jarri ditu salgai. Egutegiek Gabonetako zesto baten zozketarako zenbaki bat daukate. 100 PTAn daude salgai Mox tabernan. Zozketa urtarrilaren 6an, Errege egunean, egingo da, Moxan bertan. Saria dagoeneko Mox tabernan dago ikusgai.

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Gabon zoriontsuak!
Urte berri on!
ANTZUOLAKO BASERRIETAKO
HARAGI
NATURAL ETA ONENAK
Juan Jose AGIRRE
Kalebarren 1, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 84


AITZ-GARBI
taberna-jatetxea
Pintxoak eta kazuelatxoak. Bazkariak eta afariak
Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

Elgetako bidea (gasolindegitik 300 metrora, "Cotones Agirrezabal"en ondoan)
Telefonoak: 943 76 39 40 / 39 41
Faxa: 943 76 56 38
BERGARA

# TELAETXE S.A.

OIHALAK eta OIHAL PUSKAK

Zetak, toailak, izarak, eta abar.

**ORDUTEGIA**
**Astelehenetik zapatura:**
**10:00-13:00**
**eta 16:00-20:00**



▶Era guztietako tapizak.

▶Sukalderako eta saloirako kortinak neurrira egiten ditugu.

▶Somierrak (artikulatuak eta elektrikoak ere bai), nordikoak eta LATEXeko KOLTXOIAK preziorik onenean!





▶Etxea apaintzeko era guztietako ehun-gaiak, estoreak...



**Ondo pasau Gabon jaixak!**

# Nissan Primera berria

*Behar bezala ezagutzeak uste baino denbora gehiago eskatuko dizu*




NISSAN

Aldi bi

**ALDIBI AUTOAK, S.A.**
ZIGARROLA 1
TF.: 943 71 20 02
20500 ARRASATE


MULTIOPTICAS
2000 Urteberrion
Zorionak
MULTIOPTICAS-ek PROPOSATZEN DIZKIZUN OPARIAK
Prezioa 15.150
GABONETAN 12.125
Prezioa 16.820
GABONETAN 11.900
Prezioa 5.450
GABONETAN 3.575
Ibiltariarentzat podometroa
Prezioa 8.450
GABONETAN 6.950
Prezioa 12.500
GABONETAN 8.900
Prezioa 17.500
GABONETAN 12.200
Barruko termometroa, kanpokoa kable gabea, eta erloju iratzargailua
Zuretzat bereziki Multiopticas-en
Bergara
Arrasate
Ordizia
Eibar
Errenteria
Prezioa 16.900 Prezioa GABONETAN 13.900
Prezioa 9.500 Prezioa GABONETAN 7.500
Prezioa 18.150 Prezioa GABONETAN 16.000
Prezioa 16.850 Prezioa GABONETAN 14.000
VISIBILIA
prezioa: 9.700
prezioa: 9.200
VOLKSWAGEN LUPO-aren ZOZKETAKO ZENBAKI IRABAZLEA
93479 zkia
MULTIOPTICAS
LARRAÑAGA
Ibargarai, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - ORDIZIA
MULTIOPTICAS - BERGARA - ARRASATE - ORDIZIA - EIBAR - ERRENTERIA


DOCKERS
LAKET
Barrenkalea 35. Tf. 943 76 03 98
Irala 5. 943 76 37 41
ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON!
Levi's
Pepe Jeans
DIESEL
TRADE MARK REGISTERED
BONAVENTURE
JEANSWEAR



MIGUEL GONZALEZ BASTIDA

# Musiko bikainen ondorengoa

Bergararra, 79 urte ■ Udal Musika Bandako musikaria, zuzendariordea eta zuzendaria izan zen ■ Bergarako Orfeoiko zuzendaria ohia ■ Santa Marinako organujolea

ARGAZKIA: BENITO CANTERO

Urte asko dira Miguel Gonzalez Bastidarekin azken aldiz topo egin nuela, baina aspalditik ezagutzen dut, izan ere, Bandako zuzendari titulua elkarrekin atera genuen Madrilen, 1953. urtean-edo. Gogoan daukat ordurako kaligrafia musikal nabarmena zuela eta gizon atsegina zela Miguel. Harrezkero harreman gutxi izan dugun arren, Gonzalez Bastidatarren ibilbidea hor dago, eta esan behar da gutxitan ematen dela horrelako musiko bikainen ondorengotza. Semealabek Ignacio Gonzalez Escalak hasitako ibilbideari eutsi zioten, eta Jose Mari, Ramon, Ignacio, Carmen, Jesus eta Miguelek berak gaztetatik azaldu zuten musikarako zaletasuna eta dohain berezia. Ignacio Gonzalez Escala Errege Mintegiko musika irakaslea, Bandako zuzendaria eta Santa Marinako organu jolea izan genuen eta Miguelek bere aitaren ibilbidea jarraitu du, 34 urtez Bergarako Bandako zuzendaria izan baitzen (bere semeak erreleboa hartu zion arte), eta oraindik ere Santa Marinako organu jolea baitugu.

Bergarako Orfeoiaren 75. urteurrena zela eta, Miguel Gonzalez Bastidak 1975ean konposatutako "Stabat mater" kantataren berrestreinaldiaren berri izan nuen. Bere nagusiena izango da beharbada eta horrenbeste urte igaro ondoren obra hori berriz estreinatzeak poz handia emango zion, ez daukat zalantzarik. Orfeoiak eta Bilboko Orkestrak indarberritu egingo zuten aipatutako lana. Bestalde, gure artean tradizio handia duen musika liturgikoari zuzendutako makina bat konposizio egin ditu Miguelek. Era berean, musika bandek jotzeko egindako euskal konpositoreen lanen transkribapenak ere nabarmentzekoak dira.

> Bandako zuzendari titulua elkarrekin atera genuen eta ordurako kaligrafia musikal nabarmena zuen

Bergara bezalako herri batek musika arloan izan duen eta duen garrantzia harritzekoa da. Don Roman Oiarzabalen eskutik, Orfeoiak maila handia lortu zuen, eta gogoan ditut oraindik garai batean San Pedron izaten ziren kontzertuak. "Illeta" nire oratorioa interpretatu zutenekoa ere une hunkigarria izan zen niretzat. "Txikien" artean Orfeoia handiena dela esango nuke.<

**FRANCISCO ESCUDERO**



(Donostia, 1912) Konpositorea. Espainiako Musikako Sari Nazionala (1945), Donostiako zilarrezko domina (1992).

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

RAC
VASCO NAVARRO

**AGENTEA-DELEGATUA**

*Ramon Maria Lili 6, behea*
*20570 BERGARA (Gipuzkoa)*
*Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54*
*Faxa: 943 76 41 54*
*ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00*
*Larunbatetan: 9.00-13.00*

IRAEGI
ASEGURUAK

# Urteko ahopekoak



## TAUREN MASKOTA

**Miel Ibarzabal Kukumako kidea Tau Baskonia** saskibaloi taldearen **"Aker"** izeneko maskotaren egilea dugu. Aurretik zehaztutako diseinuari jarraituz, lehenbizi igeltsoarekin moldeak egin zituen Mielek eta jarraian latex-arekin egin zuen maskota, zapatila erraldoi eta guzti. Tau Baskoniak Araba Arena pabiloian jokatzen dituen partiduetan erabiltzen da maskota, zalegoaren animoak piztu eta, bide batez, jokalariei bultzada emateko. Taldeko izarretako bat Bergarako harrobitik irtendakoa dela esan behar...






## *GARAko aurpegia*

*Maria Aginagalde Mendibil bergararra aurten kaleratutako Gara egunkari berriko irudia izan genuen. Prentsako eta telebistako iragarkietan Maria irripartsu ageri zen, egunkariaren irteera iragarriz. Gara egunkaria urtarrilaren 30ean kaleratu zen. Maria primeran moldatu zen kamara aurrean eta publizitate ezinhobea egin zion egunkariari...*

## ERTZAINAK

Aurten Euskal Telebistak emititutako **"Ertzainak"** telesaileko **kanpoaldeko irudiak Bergaran** grabatu ziren. Horrez gain, Tentazioak produktorak Euskal Telebistarako egindako lan honetan, herriko hainbat jendek aktore lanak egiteko aukera izan zuen eta batek baino gehiagok maila ona erakutsi zuen kamara aurrean. **Kastingera 200 lagun** inguru aurkeztu ziren. Maiatzean eta ekainean emititu zen telesaileko errepartoburuan **Jose Ramon Soroiz, Joseba Apaolaza, Mireia Gabilondo eta Aitor Mazo** aktoreak ziren.



IRALA AUTOZERBITZUA

Mujika gozotegia



Olabe Okindegaia

**Zapatu arratsaldetan eta domeka goizetan zabalik**

Irizar pasealekuko 3an gaituzu zeure zerbitzura.

Tf.: 943 76 10 71.



## MENDIRIK MENDI

**Euskal Mendi Federazioak bere sorreraren 75. urteurrena** ospatu du aurten. Euskal Herriko mendizaleak elkar ezagutzeko helburuarekin, "Goazen mendirik mendi" izenburupean, **Iparraldea, Nafarroa, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako mendietan** zehar irteerak antolatu ziren. **Pol-Pol eta Gorla Alpinoko kideek** martxa horien testigua jaso zuten otsailaren 14an Ernion, Iruñeko Donibane taldekoen eskutik; martxoaren 7an, berriz, Iparraldeko **Auñamendi** taldeak testigua pasatu zieten Mendaurren. Martxoaren 14an, herriko mendizaleak Iruñeko **Amaia** taldekoekin elkartu ziren Udalaitzen, nafarrei testigua utziz. Azkenik, maiatzaren 23an, Elgetan, amaiera eman zitzaien Euskal Mendi Federazioaren urteurreneko ospakizunei.



## KORRIKA

**"1+1= Hamaika. Zu eta ni euskaraz"** lemapean, Korrikaren **11. edizioa martxoaren 24an**, gauez, iritsi zen Bergarara. Gauerdi aldera iritsi arren, jende dexente bildu zen herriko kaleetan euskararen aldeko maratoiari ongi-etorria emateko eta baita parte hartzeko ere. Aurretik, **Akulu-AEK** euskaltegiak antolatutako txokolatada izan zen San Martin plazan eta arratsaldean, berriz, ikastetxeetako gaztetxoek **Korrika Txikian** hartu zuten parte. Gauean, lekukoaren atzetik korrika egin zuten guztiek sasoi bikaina erakutsi zuten.






## IRAKASLEEI OMENALDIA

**Pilar Lonarbide eta Don Lucio De la Presa** Osintxuko eskolako irakasle ohiek omenaldia jaso zuten **ekainaren 20an**. Hainbat urtetan itxita izan ondoren, aurreko ikasturtean berriro zabaldu zen Osintxuko eskola. **"Osintxuko eskola bizirik"** lemapean, hainbat ekitaldi izan ziren astebukera osoan eta. 15 bat urtez Osintxun lanean ibilitako Pilar Lonarbide eta Don Lucio De la Presa senar-emazteek bere ikasle ohien omenaldia jaso zuten. Frontoian egindako bazkarian 1**16 lagun** elkartu ziren; bazkalostean, omendutakoek hainbat opari jaso zituzten.





## MAIORATARRAK TXAPELDUN

Basalgoko **Iñarre baserriko Juan eta Jose Mari Maiora** aita-semeek Estatu mailako **abelgorrien lehiaketan lehen saria** eskuratu zuten **"Kapritxo"** behiari esker, 5 eta 8 urte bitarteko kategorian. Urriaren 17an Altsasun egindako txapelketan pirenaika arrazako 250 behi izan ziren lehian eta Maioratarrek lehen saria lortu zuten euren kategorian. Euskadiko Txapelketa ere irabazi zuten Gernikan **"Linda"** behiarekin, 2,5-3,5 urte bitarteko behien kategorian.

## SAN MIGELEN ZERURATZEA

Aurtengo San Migel jaietako ekitaldirik nagusiena **Arbiaska** pilotalekuaren inaugurazioa izan bada ere, bertako auzokideek **San Migelen zeruratzea egin zuten irailaren 29an**, azken urteotako ohiturari eutsiz. Santuari lau globo lotu zitzaizkion eta San Migelek iparrerako bidea hartu zuen, haizeak hego-menbaldetik jotzen zuen eta. Aurten sekula baino azkarrago topatu zuten, gauean bertan **Lezoko Iriarte-Enea** baserriko **Iñaki Legorbururi** "agertu" baitzitzaion santuaren irudia. Sari sisa, **20.000 pezeta eta Angiozar bisitatzeko gonbidapena** jaso zuen Jose Angel Mikeoren eskutik.

## MALDAN BEHERA TXOFER BARIK

Argazkian ikus dezakezuen autobusak **120 metro** egin zituen maldan behera txofer barik **azaroaren 8an**. Autobusa **Aranerrekan**, Eguzkitza erretegiaren ondoan, aparkatuta zegoen maldan behera hasi zenean. Txoferrak esan zuenez, frenoa emanda eta atzeko martxarekin laga zuen. Autobusak arbola bat, semaforoa eta hesi bat eroan zituen aurretik, garajeen sarreran aparkatuta zeuden bi autoren eta errepidean zihoan beste baten kontra tupust egin eta gelditu zen arte. Zorionez ez zuen inor harrapatu.




Agirrebeña
JATETXEA

Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

Agirrebeña jatetxeak zera jakinarazi nahi die bere bezero eta lagunei:

**Urtarrilaren 8tik aurrera, egun batzuez, itxita izango dugu konponketa lanak direla eta. Irekiera garaiz iragarriko dizuegu.**

Gabon zoriontsuak izan ditzazuela.



## MARIAREN LAGUNDIAN IBILITAKOEN BAZKARIA

Mariaren Lagundia ikastetxearen sorreraren 200. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldiei amaiera emateko, joan zen **azaroaren 20an** ikasle, guraso eta irakasle ohien bazkaria izan zen ikastetxean bertan. Giro ezinhobean, **500 lagun** bildu ziren eta pasiloetan jarritako mahaietan primeran bazkaldu ondoren, izango zuten bai ikasle garaiko kontuak gogoratzeko aukera. Egun horretan elurra egin zuenez, kanpotik etorritako jendeak nahi baino azkarrago alde egin behar izan zuen. Hala ere, guztiek primeran igaro zuten eguna, aspaldiko lagunekin elkartuta.



## TXIRRINDUZALEEN AFARIA

*Azken urteotako ohiturari jarraituz, Bergarako txirrinduzale talde batek **denboraldi amaierako afaria** egin zuen Elorregiko Alkartasuna elkartean azaroaren 5ean. Guztira, 28 lagun izan ziren giro ezinhobean afaltzen, tartean Euskalteleko **Ramon Gonzalez Arrieta eta Roberto Laiseka**, Banestoko **Jon Odriozola, Juan Manuel Garate** (Lampre taldearekin fitxatu berri duena), **Santi Aiastui** antzuolar profesional ohia eta Iberdrola taldeko **Unamuno** bergararra. Guztiek oroigarri bana jaso zuten afalostean eta, bere ezkontzaren bezperatan, Ramontxuri opari berezia egin zioten herriko txirrinduzaleek. **Ramontxu eta Joane Somarriba**, aurtengo Giroko irabazlea, azaroaren 27an ezkondu ziren.*



## PENELOPE & POTI

**Iñigo Gallastegi "Poti"k** Estatu Batuetara alde egin zuen apirila aldera eta bertan jarraitzen du, **San Francisco** hirian hain zuzen. Ziur lagun asko ezagutu dituela bertan eta **Penelope Cruz** aktorearekin ere egin zuen topo udaren atarian, Kalifornian. Hollywood zine izarren topaleku dugu eta Cruzek ere izan du bertan errodatzeko aukera. Iñigo bizi den auzoan filme bat grabatzen ari zirela, "Poti"k Penelope ezagutu zuen eta argazkia atera ere bai. Hau bai filme baterako bikotea!!


BILTOKI

**dekorazioa**
ESTILO KLASIKOKO ALTZARIAK ETA GAZTE ESTILOKOAK.
ALFONBRAK, KORTINAK, LARRUZKO SOFAK...
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK
**SAN MARTIN PLAZA. Tfnoa: 943 76 43 51**

**elektragailuak**
MERKATUKO MARKARIK ONENAK
**BARRENKALEA 6 . Tfnoa: 943 76 25 96**

**ikus entzunezkoak**
Banatzaile ofiziala
SONY PHILIPS SAMSUNG PIONEER

**sukalde eta bainuak**
SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
GARANTIA ETA ZERBITZU HOBERENA.
**SAN PEDRO PLAZA Z/G. Tfnoa: 943 76 34 00**

**Gabon zoriontsuak izan ditzazula opa dizugu eta urte berri on!**

# Gaurko GABONAK

## Mahaingurua



**2000. urtearen atarian, mende honetako azken Gabonen inguruko mahai-ingurua egin dugu Izarra Arriaran, Patxi Berraondo, Andoni Izagirre eta Lide Oregi bergararren partaidetzarekin. Gaur egungo gizartean Gabonak ospatzeak duen zentzua, kutsu erlijiosoa, kontsumismoa, ohituren aldaketa eta beste hainbat galdera izan dira mahai gainean. Hona hemen mahai-inguru horretan jasotakoa.**

***Lehenik eta behin, gustoko dituzue Gabonak?***

**Patxi Berraondo:** Gustoko izan edo ez izan bakoitzak ikusi behar du. Aspaldiko ohitura da, eta, opor egunak direnez, jende askok gustora hartzen ditu. Nire ikuspegitik, jendea batzeko egun aproposak dira. Familietan-eta ez da egoten elkarrekin egoteko horrelako aukera askorik, eta, nahiz eta kasu askotan familiako norbait falta izan, nik uste dut ondo daudela. Niretako egun bereziak dira eta gustora hartzen ditut. Badakit jende bati ez zaizkiola gustatzen, baina jai hauek beste izen bat beleukate, ziurrenik jende guztiarentzat primerako egunak lirateke.

**Lide Oregi:** Niri ere gustatzen zaizkit. Beharbada, etxekoandreondako lan gehiago suposatzen dute, baina nik gustoko ditut. Kristau bezala eta fededun bezala, niretako Gabonak garrantzitsuak dira. Ez nago ados fetxa horietan dagoen kontsumismoarekin, baina, bestela, niretako inportanteak dira. Egia da aldatuz joan direla eta jendearentzat zentzu erlijiosoa galdu dutela. Batek baino gehiagok, beharbada, beste zentzu bat emango die, eta beraren-





*Ondo pasau Gabonetan!*

GIDE COLOR

**Dekorazio profesionala**

**Denetik pintura-dekoraziorako**

**Norberak etxea margotzeko pinturak**




**Milaka kolore egiten ditugu momentuan**

Ordutegia: 08:00-13:00 eta 14:30-19:15. Zapatuetan: 09:30-13:00. 943 76 52 42. Faxa 943 76 56 17. Amillaga 5 (Renault ondoan)



tzat opor egunak besterik ez dira izango. Niretako, zentsu erlijiosoa daukate, eta familiako giroa atsegin dudanez, egun alaiak dira. Kontsumismoa Gabonetan bai, baina urte guztian zehar ere jasaten dugu. Era berean, egia da ere afaltzeko edo bazkaltzeko orduan mahaian falta direnekin akordatzen zarela.

**Andoni Izagirre:** Txikitan beste ilusio batekin bizi izaten dira. Orduan, Gabonetako kontuetan sinisten duzu, Olentzero dela, opariak direla... Baina adinarekin, hori dena galtzen denean, Gabonak beste ikuspegi batetik hartzen dituzu. Nik, behintzat, neguko oporrak balira bezala ikusten ditut eta jende batek ematen dion zentzu hori ez dut kontuan hartzen.

**Patxi Berraondo:** Igual hemendik urte batzuetara beste modu batera ikusiko dituzu, umeei esker, berriz ere Gabonen hasierako ilusio hori nolabait berreskuratzen delako.

**Lide Oregi:** Zeharo aldatzen dira, bai, Gabonak umeak alboan izanda.

**Izarra Arriaran:** Txikia nintzenenean gustoko nituen baina gaur egun ez zaizkit batere gustatzen. Gabonek nik onartzen ez dudan zentzu erlijiosoa daukate, hori ez dator bat nirekin eta iruditzen zait zertan sentiturik ez daukadan gauzak sentitu eragin nahi dizkidatela. Familiaren historia hori guztia erabat errespetagarria iruditzen zait, baina niri jende asko falta zait, eta ez daukat beste batzuek sentitzen duten gauza bera sentitu beharrik. Gabonak oporrak hartzeko aprobetxatzen ditut, hanka egiteko. Bestalde, gehiegizko kontsumismoa hor dago eta, nahiz eta jende gehienarentzat zentzu erlijiosoa erabat galduta egon, sentimendu hori hor dago eta Gabonak heldutakoan hipokresia apur bat somatzen dut.

**Lide Oregi:** Ni ere zurekin nago. Ikusten dut ezin garela kristau egun horietan bakarrik izan eta besteekin orduan bakarrik gogoratu. Gaur dauden premiak eta beharrak ikusita, horrenbeste behartsu hirugarren munduan, gure artean ere bai... Gabonen inguruan dagoen kontsumismoa eta horrenbeste diru gastatzea nik neuk ere ez dut ondo ikusten.

**Izarra Arriaran:** Eta beste gauza bat dago. Gabonak hurbiltzean gobernuz kanpoko erakundeek herritarren sentimenduekin jolasten dutela iruditzen zait. Bere irabazien hainbestekoa ez dakit zein kausatarako bideratuko dutela saltzen digute, jendea Gabonetan joko horretan errazago jausiko dela aprobetxatuz.

**Andoni Izagirre:** Ematen du aprobetxatu egiten direla, beraiendako egun hauek izaten direlako onenak. Jendea sentsibilizatuta dagoenez, eta fetxa hauetan jendeak diru gehiago izaten duenez, horrekin jokatzen dute.

**Patxi Berraondo:** Udan ere aparteko ordainsaria jasotzen du jendeak, eta orduan ere antzerako kontsumismoa egoten da, bidaiak eta bestelakoak direla eta. Orain dela 20 bat urteedo, Gabonetan ez zen inor irteten, etxean egoteko egunak izaten ziren: afaldu, kantuan egin... Orain zer gertatzen da? Jendeak alde egiten duela, dirua duelako. Lehen, berriz, ez zegoen dirurik. Orain 50 urte ez zegoen kontsumismorik, denok ginen katolikoak, apostolikoak eta erromatarrak, eta eli-



"Nire ikuspegitik jendea batzeko egun aproposak dira Gabonak. Familietan-eta ez da egoten elkarrekin egoteko aukera asko"

*PATXI BERRAONDO*
*Dendaria*



"Kristau bezala eta fededun bezala, niretako Gabonak garrantzitsuak dira. Familiako giroa gustatzen zaidanez, niretako egun alaiak izaten dira"

*LIDE OREGI*
*Etxekoandrea*



"Gabonek nik onartzen ez dudan zentzu erlijiosoa daukate. Zertan sentiturik ez dauzkadan gauzak sentitu eragin nahi dizkidate"

*IZARRA ARRIARAN*
*Tabernaria*



"Txikitan bestelako ilusioz bizi izaten dira, Gabonetako kontuak sinisten dituzulako. Gaur neguko oporrak balira bezala ikusten ditut"

*ANDONI IZAGIRRE*
*Ikaslea*


PINTURAS BERGARA S.L.

• INDUSTRIARAKO PINTURAK
• APAINKETARAKO PINTURAK
• GARBIKETAK
• ERROTULOAK

Aranerreka 32, behea BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65, faxa: 943 76 11 40



zara joaten ginen. Eta dirua eskatzeari buruz, bada, orain gobernuz kanpoko erakundeak izango dira; lehen Congoko beltzak ziren... Niri gustatzen zaizkit Gabonak familiarekin egoten naizelako eta, erlijio zentzuaz aparte, egoten naiz gustora urtean bi afari edukitzen ditudalako beraiekin. Disfrutatu egiten dut ama nerbiosa ikustean, zer gertatuko ote duen kezkatuta...

**Izarra Arriaran:** Niretako oso tristeak dira Gabonak, eta sentsazio hori ez zait batere gustatzen.

***Orain arte behintzat, emakumeei lana pilatu izan zaie bazkariak eta afariak gertatzerako orduan.***

**Patxi Berraondo:** Beraiek nahi izan dutelako izan da horrela. Gabonetan eta horrelako saltsetan emakumeak dira sukaldean agintzen dutenak.

**Lide Oregi:** Nik gustora hartuko nuke beste batzuek ere laguntzea. Amantala prest eukitzen dut norbaiti lagatzeko...

**Patxi Berraondo:** Baina beste batzuek zuk esaten duzuna eta zuk nahi duzun moduan egiteko. Sukalde kontuetan feminismoa da nagusi.

**Izarra Arriaran:** Laguntza pixkat ondo legoke.

**Patxi Berraondo:** Bai, baina, amak, emakumeak eroaten du sukaldeko asunto guztia.

**Lide Oregi:** Normalki ama izaten delako familia batzen duena.

**Andoni Izagirre:** Ama da agintzen duena (zuk mahaia jaso, zuk beste hori egin...) eta nahikoa lan izaten dute bazkari eta afariak gertatzen. Jatera gustora zoaz egun horietan dena gozoa egoten delako eta edozein egunetan jaten ez dituzun jakiak direlako.

***Gabonek galdu egin dute kutsu erlijiosoa?***

**Izarra Arriaran:** Oraindik ere kutsu erlijioso nabaria izaten jarraitzen dutela uste dut, nahiz eta jendeak hori onartu ez. Nik ez diet sentimendu hori eman nahi, baina uste dut badagoela.

**Lide Oregi:** Niretzat kutsu erlijioso hori ez badauka, kristau bezala, zentzua zeharo galtzen dute Gabonek. Beharbada, hori galduz joan da azkenaldia, baina niretzat inportantea da, nahiz eta beste batzuek ez jarraitu horri.

**Izarra Arriaran:** Nik ere familiartean ospatzen dut Gabon gaua eta Natibitate Eguna eta txikitan izugarri gustatzen zitzaidan. Gaur egun, aktu erlijioso askori (ezkontzak, Gabonak...), nire ustez, jendeak ez die zentzurik hartzen, eta kontsumitzeko aitzakia hutsak bihurtu dira.

**Lide Oregi:** Ni ere ezkontzen inguruko luxu horren kontra nago, baita egun hauetan gauza garestienak erostearen aurka ere. Niretako beste zentzu bat daukate Gabonek. Kutsu erlijiosoan sinisten dut, eta errespetatzen dut sinisten ez dutenen iritzia.

**Andoni Izagirre:** Nik ez ditut Gabonak erlijio kontuekin lotzen. Lehen, txikitan, gauza inportante bat bezala ikusten nituen Gabonak, baina gaur egun opor egunak besterik ez dira niretzat.

***Asko aldatu dira Gabonak azken urteotan. Zelakoak izango dira etorkizunean?***



"Duela urte batzuk Gabonetan ez zen inor irteten, etxean egoteko egunak izaten ziren, jendeak dirurik ez zuelako. Gaur kontsumismoa da nagusi"

*PATXI BERRAONDO*
*Dendaria*



"Sukaldean emakumea nagusi dela? Horrela da normalean ama izan delako familia batu duena. Dena dela, laguntza gehiago ez legoke gaizki"

*LIDE OREGI*
*Etxekoandrea*



"Gobernuz kanpoko erakundeek, herritarren sentimenduekin jolasten dute Gabonetan, jendea joko horretan errezago jausteko dagoela aprobetxatuz"

*IZARRA ARRIARAN*
*Tabernaria*



"Gabonak zenbat eta lehenago hasi, interes komertzialak dituztenentzat, hobe. Gero eta lehenago hasten dira publizitate eskaintzekin"

*ANDONI IZAGIRRE*
*Ikaslea*

RPS 421/97

**Estella ortopedia**

Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna

*OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA*

Matxiategi 5
BERGARA
Telefonoa:
943 76 19 63

**Zorionak bergarar denoi!**



**Lide Oregi:** Bizimodua aldatuz doa. Afalostean, denok giro onean egonda gero, irtetea pentsatzen badute, nik ez diet ezetzik esaten, bakoitzak ikusiko du. Lehen, gure gurasoen denboran, ohitura izaten zen Gabon gauean gauerdiko mezatara joatea. Inork ez zigun esaten mezetara joateko, baina batzuk joaten ziren, eta orduan ere etxeko giroa pixkat apurtu egingo zen, orain kalera irteten direnekin gertatzen den moduan. Oso polita zen auzokideekin egoten zen giroa ere; bizilagunak etortzen ziren kafea hartzera eta elkarrekin egotera. Hori ere galdu da.

**Izarra Arriaran:** Nik uste, etorkizunean asko aldatuko direla Gabonak eta emakumeak gertakizun guztiaz arduratzea bukatu egingo dela, gaurko emakume gazteak ez dudalako uste ardura hori hartzeko prest daudenik.

**Patxi Berraondo:** Nik gure amari afaria neuk gertatuko dudala esan eta pasiatzera bidaliko banu, ez lidake lagako. Nik ez dakit zenbateraino aldatuko diren gauza horiek. Etxean bikotea dago, eta lanak banatzen dira. Seme-alabak baldin badaude, bada, berdin. Sukaldeko lana nahi duenak hartzen du, nire koadrilako gizon batzuek beraiek egiten dute sukaldeko lana, baina gehienetan ama da nagusi sukalde kontuetan.

**Andoni Izagirre:** Niretako gauzak dezente aldatuko dira. Beharbada, helduko da momentu bat jendea Gabonetako egun berezietan jatetxeetara joango dena. Hori ere aldatu egin daiteke.

**Patxi Berraondo:** Guk, Gabonzaharretan, soziedadera joateko ohitura daukagu. Gabon gaua, berriz, etxean pasatzekoa dela uste dut, eta seme-alabei egun horretan etxean geratzeko eskatzea ez zait gehiegi eskatzea iruditzen. Urteak 365 egun dauzka, eta gazteok urte osoa daukazue nahi duzuenerako. Gau horretan etxean geratu, familiarekin egon, kinan edo dena delakoan egin... Urteko gau bat sakrifikatzea dela? Noiz dago familiartean gau bat igarotzeko aukerarik? Zer egoten da, bada, Bergaran egun horretan?

**Lide Oregi:** Zure seme-alabek, beharbada, horrela pentsatuko dute zure adinera heldutakoan.

***Kontsumo irizpideak direla eta, gero eta lehenago hasten dira Gabonak. Zer iruditzen zaizue?***

**Andoni Izagirre:** Zenbat eta lehenago hasi, orduan eta hobeto interes komertzialak dituztenentzat; hori argi dago eta gero eta, horrexegatik, lehenago hasten dira publizitate eskaintzekin.

**Lide Oregi:** Abuztuko oporrak bukatzen direnean, marketing adituak eta hurrengo oporrei begira hasten dira lanean, kontsumitzaileak erakartzeko formulak asmatzen eta horren eragina nabaria da komunikabideetan.

**Patxi Berraondo:** Hemen, normalean, Kontzesiño eguna pasatu eta gero sartzen gara Gabonetan. Inmakulada egunerako-edo, San Pedro kalean, Larrañaga gozotegiko kokodriloa jartzen zutenean bagenekien Gabonak gertu zirela, eta ume denak joaten ginen kokodriloa ikustera. Oraindik ere jarraitzen dute ohitura horrekin.<




# Onena eta txarrena

**Mendea eta milurteko berria hastera doazela eta, Bergarako hainbat arlotako pertsonairekin hitzegin nahi izan dugu, eta bukatzera doan aldiari buruz zer pentsatzen duten eta 2000. urtea nola hasi nahi luketen galdetu diegu.**

**1. XX. mendeko zein gertaera positibo nabarmenduko zenuke? Zein negatibo?**

**2. XX. mendeko zein pertsonaia positibo nabarmenduko zenuke? Zein negatibo?**

**3. Zein izango litzateke 2000. urtea hasteko albisterik onena?**



**MAITE ARISTEGI**
**EHNEko idazkari nagusia**

**GERTAERA**
+ Emakumeak emandako aurrerapausoak.
–1936. urteko uztailaren 18ko altxamendua.

**PERTSONAIA**
+ Gizartea bera eta gizarteko talde askoren lana.
– Franco.

**URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA**
Euskal Herrian erreferendum demokratiko bat egiteko data jarri dela.



**JUAN LUIS BIKUÑA**
**ETBko kazetaria**

**GERTAERA**
+ Arrasateko Unibertsitatearen sorrera, Debagoienari ekarpen garrantzitsua egin diolako.
– ETAren su-etenaren amaiera.

+ Pedro Migel Etxenike.
– Mayor Oreja.

**URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA**
ETAk betirako su-etena iragarri duela.



**REYES AZKOITIA**
**Pilota entrenatzailea**

**GERTAERA**
+ ETAren su-etena.
– Bestaldetik erakutsi duten jarrera.

**PERTSONAIA**
+ Julian Retegi.
– Ez nuke jakingo izen bat ematen.

**URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA**
Oso pozik entzungo nuke Euskal Herrian bakea lortu dela, albiste zoragarria izango litzateke.



**JOXE ARRIETA**
**Aritzeta abesbatzako presidentea**

**GERTAERA**
+ Berlingo harresia botatzea eta mugak desagertzea.
– Gosea, pobrezia eta gerrak.

**PERTSONAIA**
+ Calcutako Teresa eta bere modukoak.
– Hitler eta bere modukoak.

**URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA**
Bakea eta elkartasuna lortu dugula berri pozgarria litzateke.



**AINHOA AGIRREAZALDEGI**
**Bertsolaria**

**GERTAERA**
+ Emakumeok egin ditugun aurrerapausuak.
– Gerrak, frankismoa eta Frantzia eta Espainiaren aldetik jasan dugun zapalkuntza.

**PERTSONAIA**
+ HIESaren aurka lan egin duen jende guztia.
- Aznar.

**URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA**
Euskal gatazka konpondu dela eta presoak etxean direla.



**EDU MURUAMENDIARAZ**
**Dantzaria**

**GERTAERA**
+ Giza eskubideen lorpenerako bidean emandako pausu guztiak.
– Giza eskubideen kontrako ekintza guztiak.

**PERTSONAIA**
+ Bakearen alde lan egin duen jende guztia.
- Diktadore guztiak.

**URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA**
Bakea lortzea Euskal Herrian, eta baita mundu guztian ere.

ESPOLON
School of English

**INGELES KLASEAK**
Haurrak, gazteak, helduak
Enpresetarako ingeles teknikoa eta komertziala
Azterketa ofizialetarako prestaketa
Ordutegi bereziak: komertzioak, erreleboak, etxekoandreak...
Informazioa: Ibargarai 31 Barruko plaza
Tf eta faxa 943 76 03 53. Ordutegia: 10:00-12:30 eta 16:00-19:00



**MAIDER LARRAÑAGA**
**EHko zinegotzia**

GERTAERA
+ Euskal Herrian, azkenean, badirudiela elkarrekin konpontzen ari garela.
– Esaten hasiz gero...

PERTSONAIA
+ Che Guevara eta Zapata.
– Milaka.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Euskal Herriak bere buruaren jabe izateko aukera baduela.



**XABIER AZKOITIA**
**Santa Marinako parrokoa**

GERTAERA
+ Vaticanoko II. Kontzilioa eta aurrerapen zientifikoak.
– II. Gerrate Mundiala, Guda Zibila. Lehen Munduak Hirugarrenean eginiko txikizioa.

PERTSONAIA
+ Paulo VI.a Aita Santua.
– Diktadore guztiak.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Konturatu garela biolentzia ez dela helburu politikoak lortzeko bidea.



**MARTIN GARITANO**
**GARAko kazetaria**

GERTAERA
+ Aurrerapen zientifikoak eta euskal arazoaren konponbidea eskuan izan dugula.
– Ez dugula arazo hori konpontzerik lortu.

PERTSONAIA
+ Che Guevara.
– Hitler eta Aznar.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Lan mundua orekatu dela, eta bakea justizian oinarritutako errealitate bat bihurtu.



**JOSE MARI ZEZEAGA**
**Pilotaria**

GERTAERA
+ Demokraziaren nagusitasuna eta diktaduren desagerpena.
– Agertu diren gaixotasun berriak: HIESa, minbizia...

PERTSONAIA
+ Jende asko egon da gauza positiboak egin dituena.
– Hitler.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Pozik entzungo nuke gerrate eta gaixotasun guztiak desagertu direla.



**BEGOÑA ARIZABALETA**
**Tartufo jatetxekoa**

GERTAERA
+ Medikuntzaren aurrerapena.
– Gerrak eta hauek ekarri dituzten hondamendiak.

PERTSONAIA
+ Calcutako Teresa eta Martin Luther King.
– Hitler.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Egoismoak alde batera laga eta gizatasun handiagoz jokatzen ikasi beharko genukeela iruditzen zait.



**JULEN NARBAIZA**
**Bedelkarreko presidentea**

GERTAERA
+ Telekomunikazioen garapena, nahiz eta ondorio negatiborik ere izan dezakeen.
– Mendea gerrekin hasi eta gerrekin amaitzera goazela.

PERTSONAIA
+ Einstein.
– Egon diren diktadore guztiak.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Euskaldunok geure arazoei konponbideak bilatzen ikasi dugula nahi nuke ikusi.



**VICTORIANO GALLASTEGI**
**Bergarako alkatea**

GERTAERA
+ Gaur egungo egoera politikoa nahiko ondo doa eta helburuak lortzeko bidetik goazela.
– Kanpotik jasotzen ez dugun kolaborazioa.

PERTSONAIA
+ Lehendakaria, paper garrantzitsu eta positiboa duelako.
– Aznar.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Bakea lortu dela eta langabeziarekin amaitu dugula.



**KOLDO LASA**
**Lasa jatetxekoa**

GERTAERA
+ ETAren su-etena.
– I. eta II. mundu gerrak.

PERTSONAIA
+ Bakearen Nobel Saria jaso dutenak, eta bakeagatik lan egin duten pertsona guztiak.
– Dirua eta "tartaren banaketa" bilatzen duten politikariak.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Euskal Herrian bakea lortu dela, eta munduan gosea eta gerrateak amaitu direla.


JOXAN
ARRAINDEGIA



Zorionak!

Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29



### ADRIAN ARRESEIGOR
**Zumelaga jatetxekoa**

GERTAERA
+ Zientzian eta medikuntzan eman diren aurrerapausuak.
– Munduan egon diren gerrak, gosea eta pobrezia.

PERTSONAIA
+ Che Guevara eta Juan XXIII.a.
– Hitler eta bere antzekoak.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Langabeziarekin amaitzea, bakea eta Euskal Herriaren subiranotasuna lortu dugula entzun nahi nuke.



### IÑIGO IGARTUA
**Txirrindulari ohia**

GERTAERA
+ Kirol marken hobekuntza; gizartean, emakume eta gizonezkoen arteko aldearen murriztapena.
– Kirolean, dopinga eta gizartean, gerrak.

PERTSONAIA
+ Indurain eta Ghandi.
– Maradona eta Franco.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Ziklo-krossa indartu dela, eta gerrak amaitu direla.



### ASIER ALTUNA
**Zinegilea**

GERTAERA
+ Intsumisioaren mugimendua.
– Bergaran, Gabonetan argiak jartzen hasi ziren eguna.

PERTSONAIA
+ Jorge Oteiza.
– Franco.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Gabon zahar gauean munduari bira emango dion hegazkinen bat antolatu ei dute; bada, hegazkin hori jausi egin dela.



### MERTXE LASKURAIN
**Migel Altuna institutuko irakaslea**

GERTAERA
+ Telekomunikazioen aurrerapena.
– II. Gerrate Mundiala eta ekarri dituen ondorioak.

PERTSONAIA
+ Bernardo Atxaga.
– Mario Condek sinbolizatzen duen "pelotazoaren" kultura.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Bakea lortu dugula, eta akordio batera ailegatu garela.



### IDOIA OLANO
**Jarduneko idazkaria**

GERTAERA
+ Telekomunikazioen garapenak ekarritako aurrerakuntza.
– Su-eten garaian espainiar alderdi politikoen jarrera.

PERTSONAIA
+ Koldo Mitxelena.
– Franco.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Ez nuke ezer berezirik aipatuko, zeozer berezia gertatzen denean, normalean, txarra izaten da eta.



### NORA OLABIDE
**Igeriketa entrenatzailea**

GERTAERA
+ Niretako, ni jaiotzea.
– Gehiegi daude bat bakarrik azpimarratzeko.

PERTSONAIA
+ Olentzero opariekin.
– Olentzero ikatzarekin.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Udalak igerileku berriak egingo dituela.



### ALVARO ESPARZA
**PSOEko zinegotzia**

GERTAERA
+ Garapen teknologikoak.
– I. eta II. mundu gerrak, Espainiako Guda Zibila eta gerrak orokorrean.

PERTSONAIA
+ Mitterrand.
– Faxismoaren ordezkariak, Mussolini, Hitler, Franco...

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Bakea lortzea bai hemen eta bai munduan. Eta giza eskubideak errespetatu daitezela.



### MILA ELORZA
**Angiozarko auzo-alkatea**

GERTAERA
+ Euskaldunok konturatu garela euskararik gabe ez dagoela Euskal Herririk.
– Mundu guztiko gerrak.

PERTSONAIA
+ Telesforo Monzon.
– Garzon.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Munduko armada guztiak desagertu direla.

ARKUPE
AHOLKULARITZA

ZERGALARITZA, KONTADURITZA,
*GENERALI* ASEGURUAK
Espoloia 12. 42 posta kutxa 20570 BERGARA
Tf. 943 76 26 09 - 76 31 19 - Faxa 943 76 26 09

# Onena eta txarrena



## GOTZON IPARRAGIRRE
**Mariaren Lagundia ikastolako irakaslea**

GERTAERA
+ Gizakia Ilargiratzea.
- Boterea mantentzea edota lortzearen izenean, han eta hemen egin diren sarraskiak.

PERTSONAIA
+ Ghandi.
- Franco, besteak beste.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Beasain-Durango egiten hastera doazela, gauza garrantzitsuagoak egon arren.



## IÑIGO HERREROS
**Gazte Lokalaren aldeko mugimendukoa**

GERTAERA
+ Gazte Lokalaren aldeko plataforma sortzea eta herrian izan duen erantzun ona.
– Gaztetxearen itxiera eta ordutik Udalak gazteekin izan duen jarrera negatiboa.

PERTSONAIA
+ Inor.
– Mayor Oreja.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Dagokigun lokala lortu dugula.



## MARKOS LASKURAIN
**Laskurain oihalak**

GERTAERA
+ Gizakia Ilargira iristea.
– Hiroshimako bonba atomikoa.

PERTSONAIA
+ Calcutako Teresa
– Hitler.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Mundu guztian bakea lortu dela.



## PATRICIA URRUTIA
**Aranzadi ikastolako zuzendaria**

GERTAERA
+ 68ko maiatzak ekarri zizkigun ilusio berriak aipatuko nituzke.
– I. eta II. mundu gerrak.

PERTSONAIA
+ Calcutako Teresa.
– Hitler.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Munduan ez dela inor goseak hiltzen.



## SUSANA IZA
**Biltoki dendakoa**

GERTAERA
+ Astronautak Ilargira iristea.
- Gerra guztiak.

PERTSONAIA
+ Fleming zientifikoa.
- Hitler.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Bakea, lana eta maitasuna guztiontzat.



## JOSE MARI GALAN
**Ipintza institutuko irakaslea**

GERTAERA
+ Simpson marrazki bizidunak.
– Telebista, kontraesana dirudien arren.

PERTSONAIA
+ Noam Chomsky.
– Mayor Oreja.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Gazte Lokala lortu dugula.



## MIREIA GABILONDO
**Aktorea**

GERTAERA
+ Emakumeok eman ditugun aurrerapausuak, nahiz eta oraindik asko egon egiteko.
– Diktadura guztiak.

PERTSONAIA
+ Woody Allen.
– Hainbeste daude..., baina, norbait aipatzearren, beheko bizilaguna.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Euskal Herrian konponbide bat aurkitu dela.



## JOXEAN ETXEBERRIA
**EAko zinegotzia**

GERTAERA
+ Gizakia Ilargira iristea.
– II. Mundu Gerra eta Espainiako Guda Zibila.

PERTSONAIA
+ Ghandi.
– Hitler eta Franco.

URTEA HASTEKO ALBISTE ONENA
Bakea lortu dela bai Euskal Herrian eta bai mundu guztian.


ONDO PASAU GABONAK!
ZUBI-BERRI
JATETXEA
ERREGE BEZPERAKO menu bereziak
ZATOZTE KOADRILAN!
San Anton auzoa Tf. 943 76 30 24



JUAN MARTIN ELEXPURU

# Mahai biribileko zalduna

Uberan jaio zen 1950ean ■ Besteak beste, *Txakurrak zaunkak atean, Kuba triste dago, Krabelina beltza* eta *Euskal lizunkerien antologia* liburuak kaleratu ditu ■ Txalaparta argitaletxeko *Literotura* saileko zuzendaria da

Pelikula bateko zuzendaria izango banintz, oso garbi daukat zein izango litzatekeen paperik aproposena Juan Martin Elexpururentzat. Nik, Arturo Erregearen Mahai Biribileko zaldun izendatuko nuke Elexpuru. Ez dakit zergatik. Beharbada, garaia delako. Agian, bibote bitxi horrek klase berezia ematen diolako. Litekeena da Juan Martinen begiak izatea arrazoia... Edozein modutan, oso ondo imajina dezaket zaldi gainean, armadura eta guzti, ezpata erabili behar duenean ere, di-da, arin astinduz.

Urtebetean lauzpabost aldiz egin dugu topo Juan Martinek eta biok. Liburu kontuak izan dira beti tartean, nola ez, eta gogoan daukat iaz, azaro bueltа horretan, Galiziako Santiagon izan zen Galeuskan lau egun pasatu genituela elkarrekin. Pertsona lasaia dela esango nuke, edo, gutxienez, sabeleko txingurriak lasterka hasten direnean ondo baretzen ikasita daukagun gizona. Santiagotik oroitzapenak eta hainbat anekdota ere ekarri nituen. Behin, egun osoko hitzaldien ostean, afaldu eta gero, garagardo batzuk hartzera atera ginen talde bat (izango al dut lizentziarik kontatzeko? Bai, ezta, Juan Martin?). Tabernak itxi zituztenean diskoteka bat zabalik zegoela, eta harantz abiatu ginen. Elexpuru sartu orduko joan zen komunera; besteak, jendearen ukabilkaden artetik ihesi, barra ondoko txoko batean babesten ginen, bitartean. Bueltatu zenean, atzetik segika zuen mutil gazte hura hurreratu zitzaion, eta garagardo batera gonbidatu zuen. Galizian ere, bera zalduna.

> Euskal letretako literatura erotikoaren ordezkaria, bera dugu errege hitz pornografikoek osatutako mahaian

*Kuba triste dago*ela esan zigun, baina gaur egun, oso bestelako saltsatan dago sartuta. Euskal letretako literatura erotikoaren ordezkaria da. Bera dugu errege hitz pornografikoek osatutako mahaian, eta ez da gutxi, kontuan izanik oraindik ere erotismoak tabu izaten jarraitzen duela askotan, gehiegitan seguruenik. *Krabelina beltza*k ez du, beharbada, arrosa gorriak duen usainik izango, baina askosaz lore ederragoa izan daiteke esku onek ongi ureztatzen baldin badakite. Eta itxura hartzen diot Elexpururi, loratегian dauden loreak ondo mimatzen dakiela.<

**JASONE OSORO**



(Elgoibar, 1971) Kazetari eta idazlea. "Tentazioak" liburuaren 6. argitaraldia kalean da.

# ederTu

**Barrenkalea 23** **Masterreka 9**

*Gabon zoriontsuak eta urte berri on!*




**ERREBELATU ONENAK**
*Albun bat*
*Kopia index-a*
*eta rollo bat opari*



**ARGAZKI KAMARAK**
*Marka onenak*
*prezio onenetan*



**ARGAZKIGINTZA DIGITALA**
*eta orokorrean*
